

# ...eta **kitto!**

748 zkia. 2011-I-21

ASTEKARIA

TOKIKOM

UNZAGA PLAZA - PLAZA DE UNZAGA



# 31'8 milioi euro: Udala ere poltsikoari lotuta

## KOMUNITATEEN

ADMINISTRAZIOA

Tel: 943 70 25 40

KOMUNITATEAK

- Auzo komunitateen administrazioa
- Etsabizitzak, gariak, industiak...
- Jaureritzaren dirulaguntzen transmisioa

AHOLKULARITZA

- Fiskala
- Laborala
- Kontabilitateari
- Aseguruak



© 2011 KEIN GROUP  
Tel: 943 70 25 40 Fax: 943 20 11 70  
Email: [komunitate@kein.com](mailto:komunitate@kein.com)

**Galdutako hezurra lehenera ekarri dezakegu eta paziente guztiek jarri ditzakete inplanteak, hezurra eta hortzoia oso gutxituta izan arren.**

Gaur egungo pazienteen gehiengo handi batek hezur-galera izaten du. Hainbat kausa izan daitezke horren atzean: hortz-ateratzeak, kisteak, periodontitisa, zahartzea... eta horrek eragiten du inplanteak modu egokienean ipini ezin izana; kasu horietan, aurrez ez badugu hezurra lehenera ekartzen, emaitza arriskuan jarri daiteke epe ertain-luzean, inplantea galtzea edo funda antiestetikoak eraginez.



**IRAZABAL**  
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1. esk.  
www.clinicairazabal.com

Tel. 943 208552  
info@clinicairazabal.com

## Hezurra lehenera ekarrita INPLANTEAK JARRI DITZAZKEGU KASU ZAILENETAN ERE




**ANTONIO MURILLO** doktorea



**AINHOA ZULUETA** doktorea

# Tratamendu aurreratuenak Irazabal Hartz Klinikari



*Inplantea ipintzerakoan ikusten dugu hezurra falta dela. Emaitza ez litzateke ona izango hezurra lehenera ez bagenuke ekarriko.*

*Klinikoki horrela ikusten dugu.*




Hezuraren kantitatea eta kalitatea jakiteko benetan zenbatekoa den ez da nahikoa erradiografia egitea, inplante bakarra ipini behar bada ere. **Irazabal Klinikari Inplanteak egiten ditugu pazienteari erradiografia panoramikoa eta masalezurreko scanner**

**hirudimentsionala barneratzen dituen lkerketa osoa egin ondoren.** Hori da modu bakarra inplantea dagokion tokian kokatzen dugunaren segurtasuna izateko. Tratamendu hobereana eskaini nahi dugu; horregatik da ezinbestekoa diagnostiko onena izatea.

zurra lehenera ekartzeko teknika Irazabal Hartz Klinikari urteak dira egiten dihardugula egunerokoa bihurtu arte; horretarako, biomaterialak erabiltzen ditugu hezur hutsuneak betetzeko. Erasokorrak apenas izan gabe, guztiz fidagarriak diren interbentzio horiek inplanteak kokatzeko hezur berri perfektua eskainiko


digute. Gaur egun erabiltzen ditugun teknikak ahalbidetzen digute, kasu gehienetan, alderik ez izatea hezurra lehenera ekarri behar izan ez denaren eta ekartzea beharrezkoa izan denaren artean inplantea ipintzerakoan. **Horrek ahalbidetzen du kentzeko eta ipintzeko ordezkio hortzeriak derrigorrez erabili behar dituzten pertsonak hortz egonkor eta erosoak erabiltzea, eurenak izango ballra moduan.**

Profesional kualifikatuak gara oinarrizko eta aurreratutako implantologian eta, kasu konplexuetan, sedazioak edo anestesia orokorrak egiteko ahalmena dugu ospitalean; horrekin, hortz tratamenduen aurrean pazienteek izaten duten antsietatea eta beldurrak saihesten ditugu, guzti hori sendagile anestesista baten etengabeko gainbegiratzearekin.




*Scanner-ean ikusi dezakegu kiste batek eragindako hezur-galera. Horrela ezin dugu inplenterik ipini.*

He-



*Hezurra lehenera ekarri dugu eta inplantea ipini.*



*Azken emaitza: aldameneko hortzekin parekatuz, ez da alderik nabarmentzen.*

**Zure eskura ipintzen dugu gure klinika eta konpromisorik gabeko aurrekontua egingo dizugu. Azkar elkar ikustea espero dugu.**

**ARGITARATZAILEA:**

...eta kitto! Euskara Elkartea

**HELBIDEA:**Urkizu, 11 - solairuartea  
20600 Eibar**TELEFONOAK:**

943 20 67 76 / 943 20 09 18

**FAXA:**

943 20 28 72

**Astekararen E-MAILak:**

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

**Elkartearen E-MAILak:**

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:**

Itziar Albizu

Adrian Alvarez

Maidar Aranberri

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

**ADMINISTRAZIOA:**

Marisol Uriarte

**KOORDINATZAILEA:**

Koldo Mitxelena

**ERREDAKZIO-BURUA:**

Silbia Hernandez

**DISEINUA ETA MAKETAZIOA:**

Jose Luis Gorostegi

**ARGAZKI ARLOA:**

Maialen Belaustegi

eta S. Hernandez

**HIZKUNTZA ARDURA:**

Juan Andres Argoitia

Maidar Aranberri

**PUBLIZITATEA:**

Itziar Albizu

Belen Ulazia

Tfnoa: 943 20 67 76

**AZALA:**

J.L. Gorostegi

**BANAKETA-ARDURADUNA:**

Ainhua Luz

**TIRADA:**

7.950 ale

**INPRIMATEGIA:**

GERTU koop. (Oñati)

**COPYRIGHTA:**

...eta kitto!

**LEGE-GORDAILUA:**

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako esanen  
eta iritzien erantzunkizunik)

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskeraz

**HAIXIA ATARA.-** Haizea jotzen hasi. *'Levantat viento'*. "Batera-batera haixia atara dau eta buelta egin biharko dogu".

**HAIXIA EMON.-** Baten bati zentzunik gabeko edo bete ezineko asmoak piztu eragin. *"Ezeixozu haixerik emon, arrazoia dakala pentsauko dau eta"*.

**HAIXIAK ERABILLI.-** Zeozertarako asmotan ibili. *"Haixiak darabiz etxetik kanpora iges egiteko"*. Asmo hori gehiegizkoa edo burugabea delako, bertan behera lagatzen dela esateko ere erabiltzen da. *"Biblia osua esperantora itzultzeko haixiak darabiz"*.

## ESKUTITZAK

### AGUR ETA OHORE, BARRASII

Eta negar egin bihar al dot? Edo madarikatu egin bihar al zaitut? Sensaziño arraruak diitut, Barras. Kezkatuta nenguan zure inguruko azken barrixak zirala eta ez zirala. Buruko miñak ez dira sintoma onak izaten, baiña hortik heriotzera? Zuk jakingo zenduan, ezta? Baiña ez zenduan nahiko jendia kezkatzia; eta oin, plasta! Beste zaplasteko bat! Zelan zaplasteko bat? Ederra kolpia, mutilla!

Eta idatzi bihar neutsun eskutitza, hau izan bihar al da? Eta jada ez zara etorriko kartzelara ni bisitatzera? Eta ez dogu konspiratzen jarraituko? Eta non geratzen dira etorkizunerako planak?

Laga gaittuzu eta zurekin eraman dozuz askatasunari zetsazun maittasuna eta, baita, sistemari zetsazun gorrotua be. Baiña ez pentsau zure bizitza alpe-rikakua izan danik, ez lagun! Askorentzako eredu izan zara eta, garrantzitsuagua oindiokan, borrokarako laguna. Eta bide horretan zugandik ikasitakua gu-ekin geratu da. Ez zure moduan, zu betiko jua zara-eta. Eta bakarrik laga gaittuzu askatasunaren aldeko borroka latz honetan. Eta negar egin dot! Eta madarikatzen zaitut! Malkoz, maittasunez eta amorruz: agur, Barras, ez dot etsiko!!!!

IGOR MAIORA (EUSKAL PRESO POLITIKOA)

### IEUPELE DANORI

Azken aste bi honetan Galerias parkian gazte talde bat korruan jarrirta ikusi dozue? Guretako eta gugaittik gauzatutako gunerik ez dakagula eta zeeze barrixa eta polita sortzeko indarra daukagula siñesten dogulako bildu gara. Askatasunian, aisialdixa eraiki eta eztabaida ezbardiñak sortu eta garatzeko biharra sentitzen dogu, eta teoriatik praktikara salto egitteko gune baten biharra daukagu. Danok daukagu zer

aportau, ideia edo asmo txixixena be haundixa dala-ko askotan; eta danon artian nahi dogun moduko guria sortuko dogula uste dogulako, urtarrillaren 28xan, 17.30etan, Untzagan kolore, adiñ, ideia, ilusiño eta irribarre diferentiak batzeko deiza egitten deusuegu zuori danori. Guk egingo dogulako bidia eta bide horrek egingo gaittulako gu... 28xan danok Untzagara!!

EIBARKO GAZTE ASANBLADA

asteko

HEMEROTEKA

esaldiak

*"Moztu egin behar dugu Google Earth -kaleetan grabatzeko bere sistema oso eztabaidatua da- eta Youtube-bekin. Jendeak deskonektatzea nahi du gero eta gehiago. Gaur egun, AEBetan luxurik sofistikatuena oporretan Internetekin konektatu ezin daitekeen tokietara joatea da. Gure aiton-amonak mendira bisitatzera joaten ginen modukoa da: egun batzuk pasatu askatasun osoz eta inork molestatu gabe. Denbora libre izatea da luxurik handiena gaur egun"*

(Marian Salzman, tendentzien ikertzaile eta aurreratzailerak)

*"Europa oso zahartuta dago; eta adinarekin jakintsua bihurtzen zarela gezurra da, bizioak hartzen dituzu bakarrik. Ez duzu ezer aporteratzen, errepikatu besterik ez; baina adinaren legea da! Nora zoaz 1'5eko jaiotze-tasarekin? Historia eta kultura asko, baina punch-a falta zaigu. Ez dago ideiarik, ezta ilusiorik ere. Batuta eta indarra eginda ere, nora goaz? Zeinek erabakitzen du? Kissinger-ek zioen moduan: zein da Europaren telefono zenbakia? Nora deitu behar da?"*

(Antonio Garrigues Walker, politikoa eta jurista)



EIBARKO  
UDALA



GIPUZKOAKO  
FORU  
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA  
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO  
SAILBURUORDETZA)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultur Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria

## autuan

### OSTIRALAK DEBEGESAN

Urtarrillaren 28xan abiatuko dira atzera be Debegesaren "Ostiralak Debegesan" programa barruko jardunaldixak, ingurumen-erantzukizunaren gaineko ekitaldixarekin. Jardunaldixa 09.00etan hasi eta 11.00ak arteko iraupena izango dau eta duan da. Edozelan be, jua nahi dabenak Debegesara deittu biharko dau (943820110).

### BEHEKO TOKIA

Urteko Batzarra egingo dabe Beheko Tokia jubilau etxeak otsaillaren 3an, 17.30xetatik aurrera. Bestiak beste, urteko diru-kontuak azalduko dittue bertan eta bazkidieri bertara agertzeko dei egitten detse.

## Eskualdeko turismo eskaintza FITUR azokan

EGUAZTENIAN HASI ETA DOMEKA BITTARTIAN MARTXAN EGONGO DAN MARDILGO NAZIÑOARTEKO TURISMO AZOKAN gure eskualdeko turismo eskaintza eza-gutzera emongo dabe eta barritasun nagusixa Europan egindako Geoparkearen erre-konozimenduan izango dau. Eskualdeko ordezkari politikue-kin batera, Debegesako hain-



bat arduradun izango dira bertan, sektoreko profesionalekin harremanak sendotzeko asmoz. Horrekin batera, Eusko Jaurlaritzaren 2010eko Turismoko Euskadi Sarixa irabazi

eban Flysch-aren ibilbidia promozionauko dabe. FITUR-en 31. ediziñua da aurtengua eta iazkuan 166 herrialdetako 10.000 enpresatik gora egon ziran bertan parte hartzen.

## Greba orokorrerako deia

URTARRILLAREN 27-RAKO, DATORREN EGUENERAKO GREBA OROKORRA DEITTU DABE ELA, LAB, STEE-EILAS, EHNE eta HIRU sindikatuak, pensiñuen erreformarako gobernuaren proposamenaren kontra protestatzeko. Aurrea egittekotan erreformak ekarriko dittuan kanbiuak, bestiak beste, erretiro adiña 67 urtera luzatzia, pensiñua izateko biharrezkuak diran kotizaziño-urtiak gehitzia eta jasotzen dan diru kopurua murriztia dira. Horren aurrera, herritar guztieri dei egin nahi detse, eguenian greba orokorrarekin bat egin deixen. Mobilizaziñuak goizian goizetik hasiko dira, 05.30xetan Eibar, Elgoibar eta Itzarraren abiatuko diran piketiek. 12.30xetarako manifes-



taziñuak deittu dittue Donostian eta baita EAEko beste bi hiriburuetan eta Iruñean be. Eta arratsalderako eskualde maillako manifestaziñua egingo da Eibarren, 18.00etan, Untzagatik hasitta.



## Garagunea inaugurau dabe

AURREKO BARIKAKUAN INAUGURAU EBEN GARAGUNEA, DESGAITASUN INTELEKTUALA DAKEN PERTSONENDAKO EGUNEKO ZENTRO BARRIXA, Arantzaga kaleko 2xan. Ekitaldixan parte hartu eben, bestiak beste, Maite Etxaniz Gizarte Politikako Foru Diputatua, Miguel de los Toyos alkatia eta Juan Ribera Goyeneche Fundazioaren Presidentiak. Fundación Goyeneche dalakua 1950. urtian sortu zan Donostian eta erakunde ongille, pribatu eta irabazi asmorik gabekua da. Helburua, "arreta okupazionalaren bittartez adimen urritasuna daken heldueri hainbat zerbitzu eskaintzia" dala diñue bertako arduradunak eta fundaziñuan 40 profesionaletik gora egitten dabe biharrera, hiriburutik kanpora hainbat herritan dittuen egoitzetan. Lantzen daben programia Gipuzkoako Foru Aldundiko Politika Sozialeko Departamentuarekin hitzartuta dago.

etxolajatetxea@hotmail.com

Erreserbak: 943-207019

Txirio kale, 1

# etxola

## JATETXEA

Eguneko menua / Karta / Pintxoak  
Enpresa eta taldeentzako aurrekontuak



*Izadi*

LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29



## “Zientziaren eta Berrikuntzaren hiria”

**AURREKO ASTIAN MADRILLEN EGINDAKO EKITALDIXAN, MIGUEL DE LOS TOYOS ALKATIAK ASTURIASEKO PRINTZE-PRINTZESAREN ESKUTIK** jaso eban gure herrixak eskuratu daberen “Zientziaren eta Berrikuntzaren hiria” titulua. Izendapena jasotzeko orduan Eibarrek herriko hainbat eragille eta enpresaren laguntasuna eta erakunde pribatu zein publikuen sostengua jaso dau: Eibar K.E. Grupo Alfa, Codesyntax, Eusko Jaurlaritzza, Gipuzkoako Adifneko Pertsonen Kontseillua, Foru Aldundia, Tekniker, Debegesa, El Corte Inglés, Armeria Eskola, UEU, Eibarko Egoitza-Hezkuntza Esparrua, Bic-Berrilan eta beste hainbatek osatzen dabe zerrendia.

## Julio Lapeyra hil da

**MIKEL LARRAÑAGA ALKATE ZALA PSE ALDERDIKO ZIÑEGOTZI KARGUA BETE EBAN** Julio Lapeyra

aurreko barixakuan hil zan, 74 urterekin. Kargua bete eban sasoiaren aldamean euki zittuan gure herriko sozialista historikuen artian aittatu leikez Benigno

Baskaran, Donato Portu eta Ramón Egaña, bestiak beste. Libe Betolaza bere alarguna Eibarko sozialisten ohorezko presidentia da. Politika mundutik kanpora be oso ezaguna zan Lapeyra: bestiak beste, Sostoa Abesbatzan jardun eban hasierako sasoiaren eta Los Pibes Hego Amerikako musika taldeko kidea be izan zan. Biharra, barriz, Rafael Lapeyra enpresan egiñ eban. Txaltxa Zelaixan emon zetsen azken agurra famelixakuak eta lagunak, ekitaldi hunkigarri batekin.



## Eroski eta Udalaren hitzarmena

**EGUAZTENIAN APARKALEKUAREN ERABILLERAREN INGURUKO HITZARMENA SIÑATU EBAN EROSKIEN ETA UDALAK,** holan praktikan martxan daguana formalduz. Siñadurarako ekitaldixan Miguel de los Toyos alkatea eta Mikel Labayen Eroskiren ordezkaria egon dira, Arantxa Etxaniz udaleko idazkarixarekin batera. Akordixuaren arabera, Eroski denda barrixaren gaiñeko aparkalekua erabillera publikokua izango da. Horrekin inguruko auzokidiak zein beste edozeiñek aparkatzeko 250 toki lortu dittu Udalak. Alde bixak oso pozik agertu dira siñatutako hitzarmenarekin.



# anzorik anzo



Zaharren egoitza bixen bittarteko loturiak zailtasun berezixa daka, bariantiaren 3. faseko obraren barruan.

## Legarreko konexiñorako biharrak aurrera

**Bariantiaren azken zatixa egitteko biharrak martxa onian segitzen dabe aurrera egitten** eta aste honetan bertan leherketa gehixagorekin jua dira mendixari terrenua kentzen, errepide barrixaren ibilbidiaren mesedetan. 2009xan hasittako biharrak hasi barri dogun urtia agurtu aurretik amaittuta egotia espero dabe eta ointxe obraren alderdi gatxenetakuari aurre egitten dihardue: Arrajolako alkargunia eraikitzen hasitta dagoz. Arrajolako tunelaren mendebaldeko ahuan, bariantiaren bigarren fasea amaitzen dan puntuan, erregular hasiko da hirugarrena eta Legarrera juango dan trafikuari sardia emoteko pasabidia bariantiaren azpittik juango da, hortik biharren zailtasuna. Hor inguruan egongo da baita be zaharren egoitza bixen tartian jasotzekua dan 82 metroko zubixa be.

Behin bariantiaren 3. fasea amaittuta, herri-barruko trafikua asko arintzia lortuko dabela pentsatzen dabe agintarixak: egunian 16.000 bat ibilgailluk herrixa ziherkatzen dabela kalkulatzan dabe, eta horretatik %10 ibilgaillu astunak dira.


## eibar kaleka

### Muzategi kalia

Errebaletik Jardiñetara juateko aldapadiari deitzen detsagu holan eta Eibarko kantutegixan jasota dator, “Eibar tiene su entrada” abestixan: “La calle Muzategi, otro punto señorial / donde vive ‘Toldonio’ con su familia real”.

**Pegora kopurua: 5**

**Erroldatutakoak: 137**



asteko

5.500

datua

lagun inguru juaten dira egunero Eibartik Ermura eta alderantziz, mobilidade estudio baten arabera: astebarruko edozein egunetan Ermutik Eibarrera datozenak 5.563 lagun dira eta Eibartik Ermura juandakua 5.486.

**MAIATZAREN 22-XAN IZANGO DIRAN UDAL HAUTESKUNDIETARAKO ZERRENDABURUA ETA ZERRENDIA OSATZEN DABEN** gaiñontzeko hautetsiak aurkeztu zittuan EAJ alderdikak aurreko barixakuan, Batzokixan egiñ eban prentsaurrekuan. Hillaren 10-ian Uri Buru Batzarrak hala erabagitta, Eva Juez Garmendia izango da alderdikak presentauko daben alkategaixa. Gaur egunian Juez alderdiko bozeramaillia da udaletxian eta bere hautagaitzak alderdikidien aldetik babes haundixa izan dabela azpimarratu eben aurkezpenian. Alkategaixak 38 urte dauzka, 2007az geroztik Udaleko Berdintasun Zerbitzuko arduraduna da eta 2009az geroztik alderdiko bozeramai-



Aurreko barixakuan aurkeztu zeban EAJ-k hauteskundietarako zerrendia. / SILBIA HERNANDEZ

llia be bada. Informaziño Zientzietan lizentziaduna da eta Historia Garaikidian graduondokoa be badaka. Bere atzetik zerrendia osatzen dabenak honetxek dira: Iñaki Zuloaga, M<sup>a</sup> Luz Balenciaga, Javier Zorrrakin, Carlos González, Ione Telleria, Miren Bakarne Sojo, M<sup>a</sup>

Jesus Agirregomezkorta, Pilipa Milikua, Roberto Larreategi, Laura Martínez, Jose Manuel Egoalde, Leire Aldalur, Mixel Balenciaga, Iñaki Bernedo, Begoña Gorrotxategi, Roberto Bergara, Isabel Azpiazu, Manolo Alonso, Begoña Muguruza eta Antonio Sarasketa.



Lacasiunek dantza ikuskizuna eskindu zeban Museuan. / SILBIA HERNANDEZ

## Museuak lau urte bete dittu

**MARTITZENIAN BETE ZIRAN LAU URTE EIBARKO ARMAGINTZAREN MUSEUAK ATIAK LEHELENGOZ ZABALDU ZITTUALA**, Portaleko 5. pisuan. Hori ospatzeko jardunaldi berezixa antolatu eben domekan, Rubén Darío Nikaraguako poetaren jaiotzaren mendeurrenarekin bat eginda. Museotik bertatik azaldu dabenaren arabera, *“ekitaldira adin guztietako jende mordua gerturatu zan, erdixa edo latinamerikarrak. Poetaren herrikide bik Daríoren hainbat olerki ezagun irakorri zittuen eta, ondoren, Lacasiun Eibarko Emakume Latindarren Elkarteak Venezuela eta Ekuadorreko dantzen erakustaldixa eskindu eban”*. Martitzenian, barriz, museuak ez eban sarrerarik kobrau. Museua eguaztenetik domekara arte egoten da zabalik, eguaztenetik zapatura arratsalde 16.00etatik 20.00etara eta domeketan, barriz, goizeko ordutegixan, 10.00etatik 13.00etara.

## San Anton jaixak giro paregabian

**ASTEBURUAN BATU ZITTUEN AURTENGO SAN ANTON JAIXAK OSPATZEKO BEHETARRAK AUZO ELKARTEKUAK PREPARAUTAKO** programaziñoeko ekitaldi gehixenak: eguraldixa lagun, zapatu goizian hainbat kirol proba eta lehiaketa izan ziran protagonista nagusixak eta domekan, barriz, meza ostian Kezka dantza taldekuak eskindutako euskal dantzen inguruan jende asko alkartu zan Azittaiñ aldian. As-telehenian, San Anton egunian egindako meza berezixarekin agurtu zittuen jaixak, datorren urtera arte.



MAIALEN BELAUSTEGI



## Maialen Araolaza OT saiuan irakasle

**AURREKO ASTIAN PRESENTAU EBAN TELE5 TELEBISTA KATIAK OPERACIÓN TRIUNFO LEHIAKETAREN EDIZIÑO BARRIXA** eta parte hartzen diharduenen artian eibartar bat dago: Maialen Araolaza fisioterapeuta. Berak izango dau Pilates metodua eta tutorixak lehiakidieri irakasteko arduria. Eibartarra ogibidez fisioterapeuta da eta Bartzelonako Unibersitat Internazional de Catalunyan klasiak emoten dittu. Horrez gain, musikarixa be bada Araolaza.

## UDAL AURREKONTUAK



## milioiko aurrekontua onartu dabe

Astelehen goizian onartu eben udaletxian egindako plenuan 2011. urterako 31.877.325,11 euroko presupuestua 18 aldeko botu (PSE-EE eta Hamaikabat), kontrako boto bi (EB-Aralar) eta abstentzio batekin (EAJ). Ezker Batua-Berdeak alderdixak eta Aralarrek gobernu taldiak aurkeztutako proposamenari osoko zuzenketa bana egin detse eta, horrez gain, plenoko zinegotzixen babesik jaso ez eben beste bost zuzenketa partzial aurkeztu zittuan EB-Berdeak alderdixak, EAJ alderdixak, barriz, inbersiñueri lotutako atalian jasotako hainbatekin erabat ados ez daguala eta, aurrekontuaren alde 4 boto emotia erabagi eban eta, hortik bosgarren ziñegotzi jeltzalia abstenitu izana.

Urteroko martxiari jarraituta, hasi barri dogun urterako presupuestua plenuan onartu eben gure ordezkariak. Diru-kontuak tartian egonda bestela ezin liteke izan eta pleno aretuan be “krisi” berbia behin baiño gehixagotan errepi-katu zan danon ahotan. Kontuan euki bihar da, Miguel de los Toyos alkatiak berak esan eban moduan, “egoera ekonomikua bestelakua izan danian 39 milioi euroko aurrekontua erabilli dogula eta ointxe 31 milioiren

bueltan gabizela”. Edozelan be, egoera barrixari moldatzeko ahalegiñ haundixa egitten diharduela azpimarratu eben plenuan eta Arcadio Benítez sozialisten bozeramailliak hainbaten ahalegiñ hori eskertu eta adibide modura ipiñi nahi izan eban: “Adibidez, Kulturaren emondako murrizketia haundixenetakua izanda be, bertakuak egoerian aurre egitten jakin dabe eta, eskintza bajau barik, hobetzia eta haunditzia lortu dabe, diru gixiango euki arren”.

Egoeriak hobera egingo daben esperantzarekin, alkate-tzako memoriak jasotako diru-sarreraren egoerian begiratzaren hasitta eta aurreko urtekuarekin konparautu, zuzeneko zergeri lotutako lehelengo kapituluaren ez da aldaketa haundirik izango, eta hazkundia edozelan be %1'5etik gora ez egittia dago aurreikusitta. Izan be, krisixa dala eta Udalak tasa eta zergak iazko moduan lagatzia erabagi dau, aurreko urtiran egindakua bidetik, fameli-



Aurrekontuak 18 boto izan zittuan alde, kontrako bi eta abstentziño bakarra. / SILBIA HERNANDEZ

zen ekonomixari moduren batian laguntzarren.

Zeharkako zergetan emondako jaitsieria, barriz, aurreko urtian egindako aurreikuspenaren %50ekua izan da, gehixenbat eraikuntzaren sektoriak euki daben beheranzko joeriaren eragifñez. Bestalde, etxietako fatxadak, teillatuak eta bestelako konponketak egiteko orduan, oif arteko moduan diru-laguntzekin diru-sarrerak dira modu nabarmentian murrizten direnak.

Gastuetara pasauta, eragiketa arrunten atalaren barruan, pertsonalaren inguruko gastuak guztien %30etik gora hartzen dabela kontuan hartuta, 2011. urterako %8ko murrizketia egittia dago aurreikusita.

#### Diru-laguntzak behera

Bestalde, iazko aurrekontuan %6,7aren jaitsiera izan eban diru-laguntzen atalak aurtien %2 gehixago murriztu dabe, presupestua ajustatzeko helburuari



### MERTXE GARATE (HAMAİKABAT): "Lehentasunezkuak ez diran inbersiñuak dagoz"

*Gure iritiz aurrekontu honek ez dira momentu honetan Eibarrek bihar dittuanak. Aurtengo presupestuak oin momentuan gure hirirako lehentasunezkuak ez diran inbersiñueri eusten detse. H11-k PSE-EEren aldetik konpromiso batzuk lortu dittu, gehixenbat enplegu maillan, baiña ez dira nahikuak. Eibarko Hamai-kabatek oin momentuan bultzatuko littuzkeen aurrekontuak bestelakuak lirakez, batez be inbersiñuak beste orientaziño bat euki biharko leukielako, enpleguan eta jarduera ekonomikuan eragiñ haundixagua eukitzeko. Zuzen jokatura, urtian zihar burutu bihar ez ziran proposamenak onartu dittugula aitortu bihar dogu, erantzukizuna danona da.*



### MIGUEL DE LOS TOYOS, ALKATIA "Dakagunarekin agindutakua betetzen ahaleginduko gara"

*Presupestorako presentau zan proposamenak aldeko 18 boto jaso zittuala kontuan hartzen badogu, babes haundixa jaso dabela azpimarratu bihar dot. Hortik aurrera, gobernu taldian daguzenen jarrera ulertzia ez da erreza, EAJ-ren kasuan gehixenbat. Abstenziñuaren aldeko botua emonda, badirudi gurekin alkarlanian jardun barik geuk bakarrik garatu dittugula proiektuak. Jakiña, hauteskundiak datozela, testuinguru horretan ulertu bihar da egin dabena. Edozelan be, Udalaren barruan daguzen komisiño eta bestelakuen ardura nagusixa neuk dakat, alkatia naizen aldetik, eta horretxan arduria delegatzeko orduan ezin detset holako arduria emon proiektuak aurrera etartzeko erramintta dan presupestua zalantzan ipintzen dabeneri. Bestalde, inbersiñuen atalian 4 millioien bueltan ibilliko gara, aurrekuetan baiño muga haundixaguarekin, baiña kontuan euki bihar da azken urtiotan kanpoko fonduetatik ixa 8 millioi euro jaso dittugula eta oinguan ez dogula holakorik eukiko, beraz dakagunarekin aurreikusita eguan programia betetzen ahaleginduko gara, hori da gure helburu nagusixa.*

jarraituta. Halanda be, San Andres Fundaziñua, Etxez Etxeko laguntzarako Fundaziñua, Musika Eskola, Dibujo Eskola edo Euskaltegixa, Udalaren menpe daguzen erakundietako batzuk "bizi dogun egoeria ekonomikuarekin jabetu eta euren aurrekontuan egin daben ahalegiña benetan azpimarratzekua dala" pentsatzen dabe.

Igoeraren bat be egon da iaztik hona: Kirol Patronatuak iaz

baiño %4'5 diru gehixago jaso ko dau. Horretarako arrazoi bi daguzela azaldu dabe: Orbeako kirolgune barrixa martxan ipiñi izana eta abonatuari kobratzen jakuen kuotia ez dabela igo azken urte bixetan. Gastuak gora doiazela kontuan hartuta, desorekarik ez emoteko hartutako neurrixari erantzuten ei detsa igoeriak.

Eta herriko kirol taldieri, alkartieri, jai batzordieri eta bestelakueri emondako diru-laguntzeri eutsi egingo detse aurtien be.

### EVA JUEZ (EAJ): "Ez dogu ikusten proiektu estrategikuak garatzeko ekimenik"



*Azken 3 urtiotan proiektuak aurrera urtetzeko presupestuen aldeko botua emon dogu, baiña presupesto honetan ez dogu ikusten proiektu estrategikuak garatu ahal izateko biharrezkuak diran ekimenik inbersiñueri eskindutako atalian. Lehentasuneri begira azkenen artian biharko leukian trena estaltzeko proiektua pagatzeko Udalak biharko dittuan 6 millioi euroak pagatzen hasteko 200.000 euro baiño ez dagoz jasota. Errebalen merkataritza gune barrixa egiteko partidarik ez dogu ikusten, Txontan hobekuntzak egiteko 100.000 euro oso gitxi dirala pentsatzen dogu eta Hiriber Planeko fonduak frontoia estaltzeko erabiltzia ez dogu ondo ikusten, Txonta, Matsaria eta beste toki batzuk daguzen moduan egonda. Horregaittik, aldeko lau botu eta abstenziño bat emotia erabagi dogu.*

#### Krisixak baldintzatutako inbersiñuak

Kapital eragiketetak 6. kapituluak jasotzen dittuan inbersiño errealetarako 4.185.939 euro dagoz eta, hasiera-hasieratik jasotzen daben moduan, "dokumentuan jasotako batzuk egittia eziñezkua lirake beste erakunde batzuren laguntza barik". Adibide moduan aittatzen dittue trenbidia estali eta gaiñian pasialekua egiteko proiektua, Txarakuan trenbidearen pasua



kentzia eta Tiburtzio Anitua kaleko frontoia tapatzia.

Atal honen barruan bereziki azpimarratu nahi izan dabe 2011an garatzekua dan irisgarritasun plana, "ixa 1.200.000 euroko zenbatekua dakan plana da eta udalaz gaindiko hainbat erakunderen onespena jaso dau, danen artian 900.000 euro ordaindu dittue eta". Planaren barruan dagoz, bestiak beste, Tiburtzio Anitua kalia trenbide gaiñetik daguan pasabidia eta Otaola Hiribidia batzeko oiñezkuendako egin nahi daben pa-

**CARMEN LARRAÑAGA (PP):**  
**"Ikastetxe batzuk konpontzeko premiñia dakela uste dot"**

*Alkatetzak aurkeztutako memorixan, ekonomixari begira urte gaxak izan dirala gogora ekartzen deskue eta horretara moldatze-ko egin biharreko ajustiak inportantiak izan dira. Zeharkako zergen atalari begira, Udalaren jardunak GKE batena ekartzen desta gogora: fatxada, teillatu eta bestelakuak zaharberritziagaittik ez da zergarik kobratzen eta, gaiñera, horretarako diru-laguntzak emoten dittugu. Inbersiñuetan, barriz, trenbidia estaltzia, Untzaga edo Amañako jubilaue etxien inguruko proiektuak eta beste batzuk, txarto ikusten ez badittut be, ez dot uste oiñ egin biharrekuak diranik. Hezkuntza arluan, adibidez, ikastetxietako batzuk konpontzeko premiñia dakela uste dot eta Haziendako buruak nere eskaerak arretaz entzun dittu.*



Elixabete Gómez, M<sup>a</sup> Asun Gartzia eta Carmen Larrañaga astelehen goixian egindako Plenuan. Azkenak aldeko botoa emon eban. / SILBIA HERNANDEZ

**ELIXABETE GÓMEZ (EB-BERDEAK):**  
**"Presupuestuak ez detse herritarren premiñeri erantzuten"**

*Lehenik eta behin plenuan nere alderdixari emondako erantzunaren garratzasuna, deskalifikaziño eta guzti azpimarratu nahi dot, gobernu taldia osatzen daben beste alderdixak PSE-EEri egindako kritikekin batera. Gure botua kontrakua izateko arrazoia presupuestuak herrixaren premiñeri erantzunik emoten ez detsala pentsatzen dogula da eta gure alderdixak ez dau osaketa prozesuan parte hartu. Aurkeztu dittugun 5 zuzenketa partzialak ez dira aurrera urten eta 2011rako inbersiñuetako batzurekin ez gagoz ados eta gure lehentasunak ez dake isladarik.*

**M<sup>a</sup> ASUN GARTZIA (ARALAR):**  
**"Eskillara mekanikuen inguruko gastuak %40 egin dabe gora"**

*Herritarren partehartzia alderdi guztiak aittatzen daben zeozer izanda be, esandakuak eta egindakuak zerikusi gitxi dake eta horren adibide garbixa Hirigintzarako Batzorde Aholkularixa da. 2010ian partehartzia bultzatzeko eguan partidako dirua ez da ezertarako erabilli. Bestalde, akzesibilidadiari lotuta, auzuetao bizitza kalidadia igo dala onartuta be, lau urtiotan eskillara mekanikuen inguruan daguazen gastuak ikaragarri egin dabe gora; presupuestua %12 jaiitsita be, mantenimientuak %40 egin dau gora. Kultura, Euskera eta Ongizate arluetan gastuak murriztu eta murriztu segitzen dabe eta, bestalde, Udalak promotoren mesedetan mugitzen dihardu oindiok be eta Lege munizipala lehenbailehen onartzeko premiñia azpimarratu nahi dogu.*

sabidia, Barakaldoko eta Wenzeslao Orbeako igogailluak eta Juan Antonio Mogelesko eskillara mekanikuak.

2010. urtean Untzagako jubilaue etxia aurtan haundittu ahal izateko biharrezkuak ziran tokixak erositta, ildo berian biharrian segitzen dabe eta horregaittik aurrekontuetan partidia sartu dabe Amañan jubilaue etxea egi- tteko lokal-billa segitzeko.

Gaiñera, urteroko moduan, partida bat sartu dabe informati- karako, herriko argiterixia hobe- tzeko, obra txiki batzuetarako,

basarri-azpiegiturarako eta bes- te hainbat konturako. Memori- xan bertan jaso dabenez, "da- nak alkartuta urtetzen daben, kantidadiak haundi samarra emon leike, baiña gauza txixixe- ri be kaso egitteko premiñari erantzuten detsa horrek, herri- tarren bizitza-kalidadiari zuze- nian eragitten detsen kontuak, askotan eurak eskatutakuak izaten diralako". Horri lotutako proiektuak dira, bestiak beste, Arrateko udalekua, Armagin 1- 3ko espaloia eta Torrekua-Ota- la bidia konpontzia.





Birjiñapeko tunela, 1938. urte inguruko irudixan. Antziñako bidia, San Andres elixia inguratzen, Calbetón kaliekin alkartzan zebana. Bide haura tunel batekin estali zan, bidia bardindu egin zan, harlosak ipiñi jakozen eta, bide gaiñian, XX. mendiares hasiera aldian Plaza Barrixa izenarekin ezagutu zan plazia egin zan. / EIBARKO UDAL ARTXIBOA. HIRIGINTZA ETA OBRAK ARGAZKI FONDOA.

## XX. mendearen bueltan

HONA HAMEN "LA VOZ DE GUIPÚZCOA"-N 1929-XAN KALERATUTAKO NOTIZIA (zinia "zorionez" erre zala diñuana) ETA 1930-EKO ENERUAN KALERATUTAKUA (udalbatza osatzeko izan ziran arazuekin). BIXAK BE GURE HERRIXAN SASOI HARTAKO BIZIPENEN BARRI EMOTEN DABE.

### Udala osatzeko arazuk

EGUNETIK EGUNERA JUAN ZIRAN BARRIXAK SORTZEN ETA, KAZETARIXARENTZAKO, HASIERAKO JARRERA EZIN JATORRAGUA ZANA PIPERTZEN JUAN ZAN ETA AZKEN ERABAGIXAK EZ ZETSEN IÑOLAKO POZIK EMON ARTIKULUEN SIÑATZAILLIARI. DANAK ASTE BATEN BARRUAN EMON ZIRAN.

– **Ziñegotzi bakar bat be ez zan aurkeztu bere kargua hartzera. Bakarrik errepublikano bat juan zan udaletxera, karguaren renunzia energikoki irakortzera. Ze poztasun herrixan! Eibarrak, iñoiz baiño demokratago, probintzia osuan imitau biharko leukien jarrera erakutsi dau. Anitua alkatia, Lesarri sekretarixua eta Etxeberria lehelen-go ofiziala izan dira bakarrik; beste iñor ez da aurkeztu. Hori bai, sesiño aretua iñoiz baiño betiagua eguan.**

Angel Arriola ziñegotzi errepublikanauak txalo haundixak jaso zittuan. Aukeratutako guztiak (botaziño bidezkuak eta zergadun haundixenak) euren karguak ez betetzia erabagi dabe, alderdixen arteko akordixorik gabe: horrek erakusten dau zer diran eibartarrak!

– **Esperogabeko Udala osatu da zortzi ziñegotzixekin. Goizeko billera batek ezusteko eritzi aldaketa ekarri dau. Desagradabilia dana.** Bagenkigun goixian billera bat egingo zala, Jose González Orbea alkate-ohia domekan probintziako goi agintarixekin egon ostian. Etxera iritsi eta han nekan notia esaten zezana Udal barrixa osatu dala "kargua onartu daben zortzi zinegotzixekin (ziñegotzixak izandako bi eta sei kontribuyente haundixenak) eta Pablo Aranzabal alkatia dala". Zelan aldatu leike batek bere jarrera egun batetik bestera?

– **Udal barrixa azkenian.** Jende morduia barriro be udaletxian, baiña espero genduazan espontaneorik gabe. Real Ordenak bultzatuta osatu bihar izan da udala eta, berandu izan bazan be, han aurkeztu ziran "konformistak". Eibarri dagozkixon 22 ziñegotzixetatik, hamabost izan dira kargua hartu dabezenak; bestiak uko egin detse. Villabellak zergadun haundixena dalako hartu dau kargua eta gobernadore zibillak bialdutako telegramia irakorri zan, alkate barrixa Timoteo Zubieta izan bihar zala esaten ebana. Interinuak, Aranzabal jaunak, emon zetsan aginte-makilla.



1927ko irailaren 7an igo zen lehenengo autoa Arrateko gurutzearaino. Ignacio Pagoaga eibartarra eta bere Peugeot-a izan ziren protagonista. Kontuan izan behar da orduko hartan errepedea Usartzaraino heltzen zela bakarrik.

### Urbanizaziñorako sute mesedegarrixa

**A**tzo gabaz ikuskizun paregabia izan zan gure herrixan, berau ordu erdi inguru argi berezixarekin iluminatuta. "Alfonso XIII.a zinia"-ren edifizixua txiki-txiki eginda geratu zan, bertan gertatutako sutiaren ondoren. Gabeko zortzirak izango ziran Alfonso XIII.aren plazatik zoian jendiak han duguazan establezimenduetako kafe tostadoretatik ke morduia urtezen zala konturau zanian. Dida batian sugar haundi batek zerurako bidia hartu eban eta hirixa iluminau argittasun haundixarekin.

Jendia pillaka juan zan plazazaruntza, ikusitta sugarrak zinetik zetoze eta eraikiña guztiz hartuta zezuala. Suhiltzailiak be berehala etorri ziran, autoridadiekin batera. Sutiak hainbeste indar hartu eban laguntza guztiak ez ebezela ezertarako balio izan. Ordu erdixan dana txiki-txiki eginda geratu zan. Zorionez, kixkalittako ziniak aspaldittik ez eban funzionatzen. Eraikiña aislatuta eguan; baiña, halanda be, gertu daguan "Maria"-ren etxia moduan ezagutzen dan teillatuak kaltiak jaso zittuan. Ziniak pisu bakarra ekan eta aseguratuta eguan.


Oindiokan ez dakixe zergaittik piztu zan sutia; baiña iñork ez eban kalterik jaso. Auzokuak, behin sutia beste edifizixuetara zabaltzeko sustua pasata, gertakarixa komentau eben. Gertakari horrekin Alfonso XIII.aren plazan egin bihareko modifikaziño plana soluzionatzen da eta holan jarraitu ahal izango da Iturrioz alkatiak aurkeztutako arku-pien konstrukziñuarekin, Kortazar arkitekтуak agindutakuari jarraituta. Ziniaren edifizixua Gaztañaga eta Kortabarría jaunen propiedadia zan.

Astelehenian onartu ziran urte barrirako udal aurrekontuak. Bizi dogun krisi sasoiarekin bat egiñaz, Udalak be gerrikua estutu bihar izan dau eta aurtengua ez da izango aurrekontu haundixena. Herrittarrak, baiña, zelan ikusten dittue Udalaren lehentasunak? Bat egitten dabe onartutako inbersiñuekin? Zer iruditzen jakue?



**OSCAR IRIONDO**  
36 urte  
bihargiña

Gizartekintzan gastatzen dana ondo ikusten dot, biharrezkua dalako. Baiña obretan larregi gastatzen dala begittantzen jata: bariantia, esaterako, biharrezkua ikusten dot, baiña trenbide gaiñan egitten daguazen pasiaua obra itzela dala uste dot.




**ELENA DOMÍNGUEZ**  
47 urte  
autonomua

Txontan, ejemplo bat ipintzeko, ez dabe ezer gastatzen; auzua guztiz abandonauta dago, botatakua-ren eskonbruak jaso barik, argittasun eskasarekin. Emoten dau zergarik ez dogula ordaintzen... eta ez dago eskubiderik. Urtiak daroiaguz holan!


**RICARDO SORRIKETA**  
54 urte  
langabezian

Aparkaleku publiko gehixago egin biharko lirakez, aparkatzia arazo benetan larrixa dalako gure herrixan. Eguaztenetan, merkadi-llua daguanez, kotxez ibiltzia ezin-ñezkua da. Munizipaletan hobeto gastatu biharko litzateke dirua, egon bihar diran lekuetan egon daittezen.



**JESUSA PEÑA**  
73 urte  
etxeakoandria

Herrixa ez da bakarrik erdiko aldia, edo kotxeiarekin pasatzen garenian ikusten dana; kale eta auzo asko abandonauta dagoz, zikiñak, konponketak aspaldi egin barik eta ixa-ixa argi barik be bai. Itxurakerixetan diru gitxiago gastau beharko litzateke.



**EGOITZA NAGUSIA**  
Bibburrieta 20 - behea, eskuma

**M FUNERARIA MUGICA**

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

Tanatorio eta Errusketak laber

Egitekerak (Signo poligonoan)

Partikular, multzo eta aseguri etxei zerbitzuak

Koroak - Eskelak - Urtutanako eskelak

Eskel Hesi azoko ospitaleen bertzen zerbitzu

Nazio eta Nazioarteko itzuldeak

**Mugica Ehorzketa**  
Funtzionario laber

TELEFONOA (24 ORDU)  
**943 201 951**

**Helbidea**

**URKIZU PASEALEKUA, 13**  
Orbeako dorreetako  
1. solairua

**EIBAR**

**CENTRO MEDICO - OSASUNDEGIA**



☎ **943 12 02 00** Fax: **943 12 02 04**

1 Kardiologia	8 Pediatria
2 Zirugia	9 Psikiatria
3 Dermatologia	10 Radiologia
4 Dietetika eta Nutrizioa	11 Traumatologia
5 Anlisi Klinikoak	12 Koloproktologia
6 Ortodontzia	13 Erizaintza
7 Otorrinolaringologia	14 Zoru pelbikoaren errehabilitazioa

**BERRIA: Foto-depilazio Unitatea**

TEEN-  
AJEA**LOST SOULS break-dance taldea:****“Dantza estilo guztiek bat egiten dute break-dancean”**

Gaur iluntzean, 20.30etan lehenengoz ikusi ahal izango da Lost Souls (“arima galduak”) taldearen dantza erakustaldia Coliseoan (5 euro). Angel, Christian, Henrique, Chimid eta Pedro, 15 eta 20 urte bitarteko bost gaztek osatutako taldeak gurean orain arte erabat arrotza izan den dantza mota gerturatzeko ikuskizun berezia taularatuko du. Kanean dantzatzeko sortua den estiloari uko egin barik, Ipurua kiroldegian Nerea Lodosaren gidaritzapean euren dantza bilatzen jakin dute eta gaurko emanaldian, egiteko ezinezkoak diruditen hamaika salto eta buelta egiteko gauza direla erakustez gain, istorioak sortu eta kontatzeko ahalmena ere badutela azaltzen ahaleginduko dira.

**- Gaur Coliseoan ikusiko dugun ikuskizuna nolakoa da?**

Dantza eta antzerkia tartekatzen joango dira. Taula gainean bost lagun egongo gara, baina istorioaren abiapuntua protagonistetako baten amets batean bilatu behar dugu. Izan ere, kanean noraezean dabilela hasten da kontu guztia eta hortik abiatuta publikoa egoera ezberdinak ikusten joango da: besteak beste poker partida bat, ikerketa bat, maitasun istorioa... piskat denetarik azaltzen joango gara.

**- Break-dance delakoa ez da oso ezaguna gure inguru honetan. Nolatan hasi zineten horrela dantzatzen?**

Bakoitza gure aldetik hasi ginen, gustukoa genuelako eta, kanpokoak izan arren, Eibarren bizi gara eta batzen joan gara, poliki-poliki, taldea orain dela gutxi sortu dugun arte. Gutariko batzuk denbora gehiago daramagu Dantza Garaikideko irakaslea den Nerea Lodosarekin eta beste batzuk gutxiago, baina une honetan proiektu honen inguruan ilusio handiarekin dihardugu beharrez.

**- Kaleko munduari lotutako dantza gustukoa izatea gauza bat da, baina nolatan animatu zarete ikuskizun oso bat sortzen?**

Azkenean burmuina gizakiak duen baliabiderik indartsuena da, argi dago eta horrela, baten ideia batekin, beste baten beste ideiarekin... bata bestearekin bildu eta ikuskizuna osatu dugu. Eta, jakina, denbora osoan Ne-

rearen laguntasuna izan dugu, ikuskizuna prestatzeko orduan ezinbesteko laguntza eskaini digu.

**- Kanpotik ikusita, break-dancea ez da oso begi onez ikusi izan den dantza, ezta?**

Lehenengo eta behin argi laga nahi dugu break-danceak eta rap-ak ez dutela zerikusirik, gauza erabat ezberdinak dira. Break-dancean jarduten dugunok “breakers” izenarekin ezagun gara. Mutilei “b-boys” esaten zaie eta neskei, berriz, “b-girls”. Berez dantza mota guztien nahasketa da eta 60ko hamarkadaren amaieran, kaleko taldeen eskutik jaio zen New Yorkeko Bronx auzoan. Kanean jaiotako dantza honetan saltsa, funkya, soula eta bestelako estiloek bat egiten dute eta lau atal nagusitan banatzen da: “toprocks” (zuti egiten den dantza), “footworks” (lurrean esku eta zangoekin egiten diren mugimenduak), “powermoves” (pausorik ikusgarrienetakoak sartuko lirateke hemen) eta “freezes” direlakoak (musikaren erritmora izoztuta moduan geratzeari deitzen zaio horrela).

**- Zer behar da zuen moduan dantzatu ahal izateko?**

Gogoia izatearekin nahikoa da, bestea atzetik dator, beste edozer gauza bezala, ikasten jotzen den zerbait da. Guk, ikasi edo lan egiteaz gain, egunean hiru bat ordu eskaintzen dizkiogu dantzari. Dantza baino gehiago, bizitzeko modu bat da, azken finean.

*Ondarrukoena izan da saria; abesti landu, indartsu eta zuzeneko tinkoa izan da garaila. Ezin esan, baina, taldeek duten onena eman ez dutenik. Despreziokoak txukun eta detaileak gehiago zainduta etorri dira eta Lord Witchekoen ikuskizuna gogoangarria izan da, ez bada, Danbakako ikuskizunik onena izan. Giro bikaina, hiru talde bikain, baina txapelduna bat: Xarma.*

## XARMA Danbaka IV. lehiaketako irabazle

### Desprezio

Epaimahaiak Despreziokoan freskotasuna nabarmenduta ere ez da erraza final baten, ikusleek begi eta belarri guztiak erne, lehenengoko egunean bezala jardutea. Oraingoan baliteke apur uzkur samar hasi izana ala minutu batzuk behar izatea beroketarako. Abesti bakar baten kontua izan da azkenean eta ikusleentzako pare bat. Azkenean oholta gainean zein aurrean, ondo girotuta neurri ona hartuta egin dute saioa Despreziokoek. Hiru akorde eta jarrera, horixe izan da euren premisa, finalerako bidea ireki diena eta finalean ere baleko saioa egitera eraman dituen. Baliteke oraingoan "sosotxoago" jardun izana baina, kontrastana badirudi ere, gogotsuago ikusi zaie, arreta handiagoare-

kin jotzen, kontzentratuago. Aurreko saiotik alde eta garapena hor ikusi da, agian.

### Xarma

Hurrengo Xarma eta tinkotasun betez ekin diote emanaldia-ri. Hasiera hasieratik konbentzitu dute ondarrutarrek: bizi, indartsu, erritmo erakargarriekin eta entzuleak eurek nahi duten bidetik eramanez. Gozatuz eginko bidea izan da gainera, eura eta ikusleak baita ere gozaziz. Erabat bete dute agertokia, baxu jola ia kabitu ezinka eta talde osoa ere erraldoi. Abantaila daukate garapen handiko abestiak dituztelako eta horrek berez duten indarrak,



ez du hutsik egiten. Ahalegina ere handia egin dute ondo girotu eta agertokiaz gain aretoaz jabetzeko. Kutsatu dute azkenean euren xarma hori tinkotasun tematiz. Aurreo saioko eragozpen tekniko barik Danbakara erakustera etorritako maila eman dute.

### Lord Witch

Sekulako harrera beroa egin diete zale eta lagunek Lord Witchekoei. Taldea ere guztia emateko gertu etorri da, garaipenerako prest. Agertokiratze handia, ke eta guzti, eszenatokia

euren modura moldatuta. Txalo eta oihuen artean sartu dira ki-deak oholtzara. Segundu bat bera ere ez dute itxaron ikuskizun osoa emateko. Ikusleak euren menpe eta egurra banatuta. Daukaten maila teknikoaz gutxi dago eransteke, guztiz kontrolpean daukaten arloa da-eta. Gauzak horrela, ikuskizuna eskaintzera eta zaleak gozaraztera dedikatu dira lehen segundutik. Metal festa itzela izan da Lord Witchekoena, jotzen azkenak izanik ere inortxo ere ez loak hartzeko modukoa, punteoen eromen guztiarekin. Ereserki moduan planteatzen dituzte abestiak ta baita horrela bizi ere. Bikainak hasieratik amaierara arte, mitikoa.

**Talde IRABAZLEA: XARMA (diskoa grabatuko dute)**  
**DEBAGOIENeko talderik onena:**  
**LORD WITCH (bideoklipa grabatuko dute)**

# GREMIOEN

# GIDA



## ANTENAK

**BALATZ** C.A.  
SAT, TVC, Bideoa

Bidebarrieta 37 Tfnoa. 943 20 05 08  
Faxa. 943 20 04 94

Ego Gain z/g  
Tfnoa. 943 12 73 50  
Faxa. 943 20 73 60  
www.trinmer.com

**trinmer**

TELEKOMUNIKAZIOAN  
PROFESIONALAK

## AROTZAK

**IÑAKI**

Egurrezko mota guztietako lanak Ateak - Tarimak Altzariak

Milaflores 10 Tfnoa. 943 20 55 55

Aroztegia  Ebanisteria  
 Obra aroztegia

**C** **N**

Egiturak, barruko eta kanpoko ateak, armairu enpotatuak, tarimak, parketak, rodapiesak, eskilarak, miradoreak, moldurak, oholak, janbak, leihoak

Otaola Etorbidea, 27 Tel. eta Faxa. 943 201 757

**SUKALDE ALTZARIAK**

\*  
**AROTZEGIA**  
Iparragirre Anaiak

F. Calbetón, 4 behea Tel. 943 20 29 27  
Tailerra: Apalategi auzoa Tel. 943 12 01 92  
Mobila: 657 79 56 78

## AROTZAK

**ulmar**  
S.L.

aluminiozko eta PVC-ko aroztegia

Txonta, 30 - 1. eta behea  
Tfnoak: 943 12 13 67 Faxa: 943 12 01 50

ERAKUSKETA  
EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

## ELEKTRIZITATEA

ELECTRICIDAD  
**CUADRA EC**

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK  
TELEKOMUNIKAZIOA  
INDUSTRIA BANTERUA  
ARREGLATUAK  
BERRIKOTZAK

ATEZAIN AUTOMATIKOAK - ARGIZTAPENA -  
MUSIKA - ETXEETARAKO ETA  
INDUSTRIETARAKO INSTALAZIOAK

**ELECTRICIDAD**  
**ETA B.S.L.**

INSTALAZIO ETA MUNTAIA  
ELEKTRIKOAK

Urkizu, 32 behea Tel./Faxa. 943 12 73 75  
Mobila. 647 90 66 20 / 607 71 38 73

**GURIA**

ELEKTRIZITATEA

\* Muntaiak eta  
proiektu elektrikoak

Matsaria 2 - 7. pabilioia  
Tel. 943 70 08 95 - Faxa. 943 82 00 27  
www.electricidadguria.com

• Barne apainketak  
• Mantenimendu  
eta automatismoak

**MANTELEC, S.L.**

Ubitxa 7-11 Tfnoa. 943 70 10 44  
Faxa. 943 20 85 48

## ERREFORMAK

**ESTUDIOS**  
**ARRILLAGA**

PROIEKTUAK-ERREFORMAK-BERRIKUNTZAK

ARRAGUETA 12 -Eibar- ROSARIO 15 -Elgoibar-  
Tel. 943 20 06 98 Tel. 943 74 40 19

## GARBIKETAK

**escudero**

INDUSTRIA GARBIKETA

Otaola Etorbidea, 13  
Tfnoa. 943 12 71 08 Faxa. 943 20 67 94  
www.escudero.euskalnet.net

**CRISTALUX**  
Limpieza

- Mantenimendu garbiketa  
- Kristal garbiketa  
- Garbiketa orokorra  
- Garbiketa bereziak

cristaluxe@gmail.com  
Tfnoa. eta Faxa:  
943 20 65 08  
Mobila:  
659 58 35 32 Ind. Ojanguren, 1 - behea (14 ac)

**Limpieza**  
**Multiservicio**  
**Eibar**

Superfizie mota guztietako garbiketa eta mantenimendu zerbitzua

Tfnoa. 943 254 615  
Mobila 688 609 171 Barrena, 26 - 6. C

**TREJO**  
GARBIKETAK S.L.

Tel: 943-752557  
Faxa: 943-752556  
16 Postakutxatila - Sorluze

Garbiketa eta mantenimendua

# Informazio gehiagorako



943 20 67 76



## IGELTSEROAK



**IRAIZABAL**  
CONSTRUCCIONES, S.L.

ERAIKUNTZA ETA ERREFORMAK  
IGELTSERITZA ETA  
GREMIOEN KOORDINAKETA

Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia  
Tfnoa. 943-120108  
[www.irazabal.net](http://www.irazabal.net)

## KRISTALAK



**ACHA Kristaldegia**

KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK  
ERREKATXU 3<sup>an</sup>

eta faxa: 943 20 39 03



**MALVAR PINTURAS**

Sostoa, 16 ac behea  
Tfnoa. eta Faxa. 943 700 900  
Mobila. 656 784 396



**Pintura**  
**Goi mailako dekorazioa**

Pago Kalea, 35 DURANGO  
Tel. / Faxa: 94 620 03 01  
Mobilak: 607 41 71 81  
666 74 30 98

## PINTURAK



**AIXA**

Pintura orokorra  
Margotutako paperak  
Zoruen kolokazioa  
PVC zoruak  
Maketak  
Alfonbrak  
Kortinak  
Etxerakoak  
Osagarriak

Tfnoa. eta Faxa.  
943 20 05 94  
T. Etxebarria, 8 - behea

## SARRAILAGINTZA

## ITURGINTZA



**INDA iturgintza**

UR, GAS eta  
KALEFAKZIO  
INSTALAZIOAK

- Proiektuak eta aurrekontuak
- Bainu eta sukaldeen erreformak

Tfnoa eta Faxa: 943 12 18 64 (tailerra)  
Mobila: 669 29 34 63

Asua-Erreka, 2



**PINTURAS ARRATE, S.L.**

- Nexa Autocolor
- Pintura industrialia
- 3M produktuen banatzailea

ARANE, 13 parrate@terra.es  
Tel. 943 20 41 04 Faxa: 943 70 06 89



**GILTZAK**

Era guzietako sarrailen salmenta eta mantenua  
Segurtasun-instalakuntzak  
Sarrailen egokipenak  
Segurtasun kutxak  
Era guzietako giltzen kopiak  
Trabatutako atek eta segurtasun-kutxak askatzen ditugu

LARRIALDIETARAKO: 943 701 391  
(08.00etatik 24.00etara)

Arragueta, 3 [www.giltzak.com](http://www.giltzak.com)  
Tfnoa. 943 70 13 91 Faxa. 943 20 86 99



**MUGICA**  
ITURGINTZA

AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA,  
GASAREN INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA,  
PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN  
ERREFORMAK ETA ABAR...

HANSGRÖHE KANILEN BANATZAILEA  
ZORU ERRADIATZAILEA  
EGUZKI-ENERGIA

Egigurentarren, 18  
Tel. 943 20 10 30 - Faxa. 943 20 72 24



**Pinturas**  
**Elias e Hijo, S.L.**

**pintura eta estaldura**  
**mota guztiak**

BARAKALDO, 7  
Telefonoa: 943 12 05 02  
Mobilak: 618 27 28 91 / 639 76 27 97



## Zazpi egun Buenos Airesen

**H**iri bat ezagutzeko modurik onena oinez bere txokoak deskubritzea dela iruditzen zait. Badaude hiriak, **Buenos Aires** bezala, izugarri handiak direnak, eta metroa, autobusa edo taxia hartzea beharrezko egiten dutenak. Baina ez da esentzia gehiegi galtzen.

Urriaren 21ean etxera bidean nihoan Argentinako hiriburuko **9 de julio etorbide**ti. Udaberri 'porteñoa' beroa da gehienbat eta ur botila bat erostera sartu nintzen kiosko batean. Ordaintzerako orduan telebistara begiratu eta bertan ageri zen jendetzaz harrিতuta, zer gertatzen zen galdetu nion dendariari. "Sindikalista bat erail dute eta manifestazioa dago hirian". "Hara noa, duda barik", erantzun nion.

**Mariano Ferreyrak** 23 urte zituen eta historia ikasten zuen unibertsitatean. Urriaren 19an **Avellaneda** inguruko trenbidea moztera joan zen Partido Obreroko kide batzuekin batera, **Línea Rocako** langileentzat lan-baldintza hobea-goak eskatzeko. Bertan hil zuten eta oraindik ez da ezer argitu bere heriotzaren gainean. Gobernuaren aurkako presioa handia zen, ordea, eta bere irudia oso kaxkarra.

Foball taldeetako **Barra Brava** delakoien gauza izan dela da susmorik hedatuena. Unión Ferroviariaren 'patota' sindikala. 'Foball zaletu' hauen biolentzia ezaguna da mundo osoan. Foballetik at doa euren boterea, politikan asko baitute esateko (atzetik noski) eta gizarte argentinarrereko eremu asko kontrolatzen dute. Beraz, Barra Braven barmean kontrola izateko borrokkak



egoten dira talde bereko 'zaletuen' artean, 'zaletu' deitu ahal bazaie. Urriaren 24ko Independiente-Boca Juniors neurketa ikusi ostean, adibidez, 14 zauritu egon zirela jakin nuen. Borroka Bocako 'zaletuen' artean izan zen.

Bizia, zalantza barik, ez da falta 'Bairesen'. Gau eta egunez, hiria martxan da. Asteleheneetik domekara agenda kultural zabala dauka. Astelehenean, adibidez, **La Bomba del Tiempo**ko perkusioaz gozatzeko aukera dago. Gorputza

astintzen dute danbor eta tinbalen hotsek. Egue-netan, bestetik, **Club Nicetoren** txanda da. 10 urte bete zituen klubak bertan izan nintzenean eta bertako performaceaa ederra izan zen. Derrigorrezko zita Buenos Airesera joanez gero.

Egun batez, ordea, Buenos Aires eta Argentina osoko bizia eten egin zen. Urriaren 27 Zentso Nazionalaren eguna izan zen eta geldirik egon zen herrialdea. Dena itxita, jendea etxean... blokeo nazionala. Herrialdearen isiltasunak ez zuen gehiegi iraua, ordea.

Gosetuta **Plaza de Mayora** joan nintzen Zelandia Berriko lagun batekin. Hotelen bateko jattetxean jan genezakeela pentsatu genuen. Harritzen hasi ginen kaleetako bakardadearen ostean plaza jendez beteta ikusi genuenean. Zergatik, bada? **Nestor Kirchner** presidente ohia eta Cristina Fernandez oraingo presidentearen senarra hil zen. Shock egoeran sartu zen Argentina osoa. Kirchnerren itzala handiegia zenaren irudia dute argentinarrak gehienek.

Buenos Aires atzean utzi eta **Rosario** ikusi nituen estatu mailako Kirchnerren hileta elizkizunak. **Paraná** ibaiaren ertzean harrituago utzi ninduten, ordea. Kirchner ez zela hil azpimarratu zidaten hainbat lagunek. Nork daki! Zazpi egun hauen ostean, ez dakit zer pentsatu.







Manu Agirre, Paternain eta Julio Gallego, Goi Mailako Kirol Kontseiluan.

## Ikastaroa eta lehiaketak judoan

**KALAMUA KLUBEKO HIRU IRAKASLE IZAN ZIREN ASTEBURUAN MADRILEN** jiu-jitsuko gaurkotasan teknikorako ikastaro batean, hori gaindituta espezialitateko gerriko beltz epai-mahaietan parte hartzeko. Domekan, bestalde, infantil mailako Gipuzkoako finalerako sailkapenezko azken proba jokatu zen Hernaniko kiroldegian eta Nekane Mugaruzak urrezko domina eskuratu zuen, eta Berta Alonsok eta Julen Ramonek brontzezkoa. Horrez gain, urtero lez, Erregeetako torneoak jokatu zen klubean.



Kiroljokoak babesten duen foball-zaletuan lehia handia dago lidergorako borrokan.

## Durangok JoserAutoren agintearekin amaitu zuen zapatuan (2-0)

**HORI EMAN DU ADITZERA ZAPATUAN JOKATUTAKO EUREN ARTEKO PARTIDUAK.** Berdinduta zeuden sailkapeneko lehenengo postuan, Teknografik-ekin batera, eta bizkaitarrek lortutako 2-0arekin, azken denboraldiko Liga eta Kopako garailea beste biengandik hiru puntura geratu da. Ez hori bakarrik: Lanús EzDok ere gaur egungo txapelkunarengandik puntu bakarrera dago. Mugimendua dago, beraz, Kiroljokoak foball-zaletuaren txapelketan.

Asteburuan honako partiduak jokatu dira: bihar, Dental Ekoden-Areto eta Teknografik-Living (09.00etan), Tankemans-Caserío (10.30) eta JoserAuto-Somos Sporting (12-00); etzi, Durango-Azkena Calton (09.00etan), Txoko-Lanús (10.30) eta Alkideba-Esmorga (12.00).

## Udaberri torneoko hiru partidu gaurko

**JUBENILEN ARTEKO PARTIDUAREKIN HASIKO DA JAIALDIA ETA SENIORREN ARTEKO BESTE BIREKIN AMAITUKO.** Azpilikueta-Andonegi bikoteak Segurako ordezkariarekin lehiatuko da lehenengo partiduan eta, ondoren, Zubizarreta-Karmonak Bergarako bikotearen aurka jokatu du eta Unamunzaga-Egaña Azpeitiko bikote indartsuaren aurka. Espero dezagun kantxa faktoreak eibartarren alde egitea.

### San Antonak Altxubarren frontoian


Azpitain auzoko frontoian partidu bi jokatu ziren zapatu goizean, San Anton jaietako egitarauaren barruan. Hasierako partiduan, Txurruka eta Kortabarria, zein baino zein seguruago, Andonegi eta Erik Lantz baino gehiago izan ziren, 22-4ko emaitzak argi erakusten duenez.



Jarraian neurrerik parekatuagoa ikusteko aukera izan zen: Unamunzaga-Karmonaren alde egin zuen emaitzak (22-20), Zubizarreta-Egaña bikoteak ere maila ona eman arren. Partiduak "pike sanoa" edo lehia handia erakutsi zuen.

## Asegarcekoak Astelenan domekan


**BINAKAKO TXAPELKETA NAGUSIAN GUZTIZ MURGILDUTA, ASTELEMAN GUTXITAN JOKATZEN DUTEN** arteko norgehiagoka hartuko du domekako jaialdiak bere partidu nagusian: hor Pablo Berasaluzek eta Apraizek Oinatz Bengoetxearen eta Patxi Ruizen aurka neurtuko dituzte indarrak. Aurretik, jaialdiaren hasieran, Apezetxea-Arruti eta Idoate-Ladis Galarza bikoteen artekoa jokatu du; eta, amaitzeko, Cabrerizo II.a-Cecilio eta Ongay-Merino bikoteen arteko norgehiagoka.



**BAMETSA**  
Toribio Etxebarria, 4


**EMAKUME ETA GIZON MODA**  
**Valenciaga**  
KONFEKZIOAK  
☎ 943 20 22 33 ZULOAGATARREN, 7

Ubera, Bastida, Narbaiza eta Isturiz pelotazaleekin; behean, Iker Narbaiza azken aldian hainbat torneoetako irabazle.



## Antimo Atxurak agur esan zigun

**HAINBAT URTETAN PEÑA PELOTAZALEKO PRESIDENTEA IZANDAKOAK ABENDUAREN 15-EAN LAGA ZIGUN**, 74 urterekin. Pelotazale eta kirolzale amorratua, 1946an sortutako aipatutako pelota elkarte horretako ardura nagusia eraman zuen urte askotan, 2007an elkarte desagertu arte. Sasoi onenetan, 1970etik 1990erako tarte horretan, Gipuzkoan bakarria izan zen Eibarko Peña Pelotazale 100 federatutakotik gora pelotarirekin eta hortik eman zuten jauzia profesionaletara Azpitarte ezkerak, Aldazabal anaiek eta Javi Intxaurrendok, beste neoprofesional eta maila handiko afizionatuekin batera. Peña Pelotazalekin batera, eta urte berean, desagertu zen Orbea frontoia ere.



Atxurra Orbea frontoian, berau bota baino egun batzuk lehenago.

## Arratek gaur ekingo dio bigarren itzuliaren aurrendenboraldiari

**NATURHOUSE LA RIOJA IZANGO DU AURKARI JULIAN RUIZEN TALDEAK** gaur Muskizen, arratsaldeko 19.30-etan hasiko den partiduan. Asobal Ligako bigarren itzulia hasi aurretik, lagunarteko beste partidua bi jokatu dituzte Arratekoek: hilaren 26an (eguztiena) Amaya Sport San

Antonioren aurka Huarten, 20.00etan hasita; eta 29an (zapatua) BM Valladolid-en kontra Oñatin. Gabon aurretik hasitako atsedendaldi luzea dute Asobaleko taldeek, denboraldia erditik moztzen diena, baina tartean Munduko txapelketa dihardute jokatzeko eta hori da jarraitu beharreko egutegia.



Txikienekin abenduan Urkiolara egindako irteeraren irudia.

## Deportiboko mendi taldearen urte osorako egutegia

**DEPORREKO MENDI BAZTORDEAK, URTEROKO IBILBIDEARI JARRAITUZ, HASI BERRI DUGUN URTERAKO** egutegia kaleratu du. Bertan ia asteburu guztiak betetzen dituen irteera eta ekitaldiak aurkitzen dira. Horrela, urtea hasi eta berehala Urkora egindako igoerari jarraituz, aurreko astean Deba eta Markinako mendi ibilaldia bete zuten, Arno tarteko. Bihar autoerreskate ikastaroa izango dute eta 29an Zarautz eta Zestoa-

ren arteko mendi ibilaldia, 637 metroko Pagoeta tartean izanik. Otsailerako, bestalde, 5ean haur eta gurasoentzako irteera antolatu dute Kalamuara (768 m.), 12an Ziraukitik Lizarraraino joango dira, tarteko Eskintza mendia (739 m.) eginez eta 26an Artikutzako Itzulia beteko dute. Txangoetan parte hartu nahi dutenek Klub Deportiboko bulegotik pasa daitezke astelehen, eguztiena eta bari-xakuetan, 19.30etatik 20.30-etara (943-201904 telefonoa).




## Areto-foballeko Debarrena: garaipen bakarra, porrot bi

**TALDE NAGUSIAK 4-0 GALDU ZUEN VENTANAS ISU LIDERREKIN LASARTEN**, kadete mailakoak lanak eman zizkion Lasakorain liderrari 6-5 galtzeko eta infantil mailakoa Gamon baino gehiago izan zen (2-8). Emaitzak-emaitza, joko ona erakutsi zuten Eibarko taldeek; baina aurkariak ez ziren edozein eta bi kasuetan aurrean liderra izateak partidua ezin bereganatzea ekarri zuen. Hurrengo jardunaldian infantil eta kadete mailako taldeek etxean jokatu dute, hau da, Hezkuntza Esparruan: bihar, 10.30etan, infantiletako Debarrena-Lasarte; eta jarraian, 11.45etan, kadeteetako Debarrena-The English School. Talde nagusiak Zarautzen jokatu du.

## Asko izan ziren urtea Urkon hasi zutenak

**EGURALDI BIKAINA APROBE-TXATUZ, INOIZ BAINO JENDE GEHIAGO** bildu zen Urkora igotzeko urtearen lehen egunean. Hori dela-eta, Klub Deportiboko-

ek eta ...eta kitto!-koek Ixuan ematen duten hamarretakoan, *"txorizo-stocka amaitu zela"* diote bertan egon zirenek; eta baita *"aurten jendeak, asko zirela ikusita, gizatasuna erakutsiz, ilara egin eta gorde zutela ere"*. Hona hemen han egondako batzuk bidalitako argazkiak.



## Neurketa zaila rugbilarientzat

**LIGA FASE HAU AMAITZEKO BOST JARDUNALDI GERATZEN DIRENEAN**, Isasak zuzentzen duen Eibar Hierros Anetxe rugbi taldeak asko egin du gora aurreko zapatuan Unben Fénix 46-6 egurtu eta gero. Hala ere, multzoko azkena izan zuten aurrean eta bihar, guztiz kontrakoa, Santanderreko San Roman zelaian Independiente liderra izango dute parez-pare. Orain artekoan talde kantabriarrak argi erakutsi du multzoko orekatuena dela eta alde handia kentzen dio bigarren sailkatuari. Zarautz da 2. sailkatu hori eta eibartarrak eurengandik hiru puntura daude: tarteaz ezabatu daiteke eta denbora badago. Zaragozako Fénixen aurkako partiduan, omenaldia egin zizaion Iban Arregi jokalaria-ohiari.

## Mirandés-Eibar domekan, 17.00etan



Eibarren jardundako Pouso da Mirandéseko entrenatzailea.

**EIBARTIK PUNTU BIRA DAGOEN MIRANDES BISITATUKO DU ETZI** Manixen Eibarrek azken aldian daraman bidea zuzentzeko asmoz. Jokoa eta, batez ere, emaitzak txarrera egin dute orain dela ez asko multzoko liderrean eta azken denboraldian gertatutakoa saihesteko kome- ni da lehenbailehen egoerari buelta emate- a. Partidua galduz gero, 2. postua ere galduko lukete eibartarrek. Bestalde, 3. mailako Eibarrek Ivan García aurrelaria fitxatu du Sestaotik; hauek Santurtzi hartuko dute Unben asteburuan.

PREST



**MONDRAGON**  
UNIBERTSITATEA

**902 110 436**

[www.mondragon.edu/prest](http://www.mondragon.edu/prest)

# ATE IREKIAK

**Goi Eskola Politeknikoa**

**ORDIZIA OTSAILAK 3** osteguna, 17:30

**Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea**

**ESKORLATZA OTSAILAK 3** osteguna, 18:00

**Gastronomia Zientzien Fakultatea**


**DONOSTIA URTARRILAK 29**

larunbata, 10:30 Miramongo  
Parke Tecnologikoko eraikin nagusia

ARETO NAGUSIAN  
*Etorni aurretik isena eman!*



**"Oroipen artean-Entre recuerdos" izenburuko I. Argazki Zaharberrikuntzaren erakusketa zabaldu du Einar Rodriguez-ek Untzaga Zentro Sozialean. Hainbat teknika erabiliz, hondatutako argazki zaharrak birrosatzen ditu orain dela 9 urte Eibarrera etorritako perutarrak. Otsailaren 6ra arte ikus daitezke argazkiok erakusketa aretoan.**



**EINAR RODRIGUEZ, diseinatzailea:**

## **"Zaharberritzeko, teknika eta alde artistikoa egin behar dira bateragarri"**

**- Zer ikusiko dugu erakusketan?**

Balio sentimentala duten baina denborarekin zahartuta edo hondatuta gelditu ziren argazkiak berri eta konpondu ditugu, eta horiek dira erakusketan ikusgai daudenak. Guk eskua sartu aurretik argazki horiek nola zeuden eta orain nola gelditu diren ikus daiteke: batzuk tamainaz aldatuta, beste batzuk zuri-bel-tza edo sepiatik koloretara pasatuta, zerbait falta zaien argazkiak osatuta... 18 lan guztira. Jendea gustora ir-ten da erakusketatik: antzina-ko kale bat ezagutu dutela, edo etxebizitza bat, sasoi ba-teko erropak, ezagunen bat... Polita da jendea hain gustora ikustea.

**- Zein teknika erabiltzen duzu zaharberritzeko?**

Hainbat teknika erabiltzen ditugu, baina ezagunena Photoshop da. Baina horrela-ko lan bat egiteko, teknikaz gain, kreatibitatea eta alde artistikoa ezinbestekoak dira, eta teknika eta alde artistikoa bateragarri egin behar dira. Diseinuaren inguruko ezagu-

tza izan behar da. Argazkilari baino gehiago, diseinatzailea naiz.

**- Nola hasi zinen alor horretan lanean?**

Perun 15 urtez egin nuen lan publizitate arloan, familia-ko enpresa batean. Eibarrera etorri nintzenez ostalaritzan hasi nintzen beharrez, eta zaharberritzearen inguruan mugitzen zen jende asko ezagutu nuen. Alfa Arten hasi nintzen lanean, Ekain-eko kobazuloak zaharberritzeko proiektuan; gero, Klub Deportiboko Argazkilari Taldean sartu nintzen eta bertoko jendearekin argazkilaritzako gauza mordoia ikasi nuen. Gauza biak uztarturik ekin nion ibilbide honi.

**- Zein asmo duzu etorkizunera begira?**


Argazki-muntaiekin beste erakusketaren bat egitea nahiko nuke. Baina gaur egun martxan dudarekin jarraituz, inguruko herrietara zabaldu eta herriz-herriko erakusketa egitea gustatuko litzaidake, txandatu inguruko herrietako argazkien erakusketa egitea, hain zuzen.

## **Nirvana jazz erritmoan**

**DOMEKAN, ETA URTA-RRILERAKO KARRIKA TABERNAN PRESTATU-TAKO EGITARUAU BIRI-BILTZEN,** Nevermind People jazz laukoteak emanaldia eskainiko du 19.00-etatik aurrera. Taldea Hasier Oleagaren egitasmoetako baten harira sortu zen eta, horrela, Nirvana taldearen abestiak hartu eta jazz moldaketa berezi eta pertsonalak egiteko asmoz batu ziren lau musikariak: Hasier Oleaga (bateria), Ainara Ortega (ahotsa), Jorge Abadias (gitarra) eta Aritz Luzuriaga (baxua). Negu honen amaiera aldera talde-



ak bere bigarren diska grabatzeari ekiteko asmoa du, udaberri aldera kaleratzeko asmoz. Emanaldia antolatu dutenen berbetan, "hainbat eta hainbatetan entzun ditugun kanta haiek beste era batera entzuteko aukera aparta" eskainiko du emanaldiak.



Oruesagasti, Narbaiza eta Telleria. / SILBIA HERNANDEZ

## **Narbaizaren azken lana salgai**

**EGUAZTENEAN AURKEZTU ZUTEN BADIHARDUGU EUSKARA ELKARTEKOEK**

Antxon Narbaizaren azken liburua: "Hizkuntza eskakizuna Eibarko Hirian 1900-1936".

Udaletxean egindako aurkezpenean liburuaren egilearekin batera Ainitze Oruesagasti Badihardugu Elkarteko ordezkaria eta Ione Telleria Udaleko Euskara Normalizazio batzordeko batzordeburua izan ziren. Deba Ibarreko euskera bultzatzea helburu duen elkarteak 17 herritako bazkideak baten ditu eta garatzen dituen proiektuen artean ezagunetakoa da ahotsak.com 2002an abiatutakoa. Urtero argitalpenen bat argitara emateko helburuari jarraituta, Durangoko Azokarako kaleratu zuten Antxon Narbaizaren azken lana. Artxibo lan handia egin du egileak eta, XX. mendearen lehen hereneko giro politiko-ideologikoa aztertu ondoren, Eibarren, udalean batez ere, lanpostu publikoa eskuratzeko zeuden hizkuntz eskakizunak ikertu ditu. Liburua herriko liburu-dendetan eros daiteke, 10 eurotan.

## Arragueta Fest jaialdia

**MARTITZENEAN AURKEZTU ZUTEN TAS TAS TABERNAN ARRAGUETA FEST KUBIK**, urtarilaren 28an, 22.00etatik aurrera Punto y Aparten egingo den jaia. Besteak beste Zestoako Grises, Planeta Leta, Zapato Tipo Bota eta DJ Euskalnew Collective talde eta disko jartzaileek hartuko dute parte. Arragueta Fest irabazi asmorik gabeko taldea da eta bertako kide diren Andrea eta Anek diotenez, "2009ko urrian sortu zen, jai alternatiboak antolatuta Eibarren jai giroa sustatzeko asmoz. Izenarekin modernitatea eta tradizioa batu nahi izan ditugu, Eibarko kale oso adierazgarria den Arragueta eta jaia esan nahi duen 'fest' berba elkartuta".

Sarrerak honezkero salgai daude, interneten (<http://sanun>



dress.com helbidean) zein Tas Tas, Katu Kale eta Koxkor tabernetan eta egunean bertan Puntón salduko dituzte, 10 eurotan. Batutako diruarekin gastuei aurre egin eta beste jai batzuk antolatzeko moduan izatea, beste helbururik ez dute eta jaialdi egunean edariak edozein tabernatan moduan kobratuko dira (eta ez

'after' prezioan). Kontzertuez gain, Joseba Barrenetxea argazkilarri profesionalaren eskutik photocall-a egongo da, nahi duenak argazkia ateratzeko eta Eibarko hainbat artistaren bitxiak (besteak beste Xarlem Crations) eta bestelakoak salgai ipiniko dituzte horretarako prestatuko duten txokotan.




## Lagun Taldearen jaialdia

**URTEROKO HITZORDUARI KALE EGIN BARIK, LAGUN TALDEAK IKUSKIZUNA ESKAINIKO DU HEZKUNTZA ESPARRUAN.** Adimen urritsuna dutenen taldeko kideek eta begiraleek "¿Cómo está el patio!" izenburuko ikuskizuna prestatu dute eta auzokideen arteko kontuen inguruan girotuta egongo da. Azken urteotako arrakasta ikusita, emankizun bi eskainiko dituzte: lehenengoa bihar eta bigarrena hurrengo asteburuan, hilaren 29an. Biak 17.30etan hasiko dira eta sarrerak euro bateko prezio sinbolikoa dauka.

## Trenaren inguruko erakusketa

**DONOSTIAN, BASAURIN, ERRETERIAN, ZARAUTZEN, IRUNEN ETA DURANGON IZAN ONDOREN**, herririk herri dabilen erakusketa ibiltaria Eibarren dago martxan aurreko eguenaz geroztik, Txaltxa Zelaian: 150 metroko karpa batean tren berriak izango duen kotxearen maketa bat dago, eskalan eginda, hiritar guztiak unitate berriak zuzen-zuzenean ezagutzeko aukera izan dezaten. Eusko Jaurlaritzak 30 tren berri aurkeztu ditu gurean eta, erakusketaren arduradunen berbetan, serie berri horretan egindako inbertsioa 201 milioi eurokoa izan da. Trenetan egingo duten ordezkapena pixkanakakoa izango da; aurreikusitako epeei jarraituta, 2011ko otsailean hasi eta 2014an amaituko dute.



## laburrak

### EUSKALTEGIA

Eibarko Udal Euskaltegian matrikula egiteko epea zabalik dago hilaren 10az geroztik. Maila eta ordutegi guztiak eskaintzen dituzte eta titulu ofizialak ateratzeko aukera izango dute ikasleek. Informazio gehiagorako bertara joan (Portalea) edo telefonoz deitu daiteke, 943700912 zenbakira.

### MAKROBIOTIKA

...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatutako makrobiotika ikastaroaren datan aldaketak izan dira: klaseak otsailaren 2an, 3an, 9an eta 10ean izango dira azkenean, Portalean, 19.00etatik 21.00etara eta izena eman dutenek amantala, labana, tabla eta tupperware-a eraman beharko dute klasera.

### SAN JUAN BOSCO

Hilaren 29an egingo dute bazkaria zinema aretoetako beharginek, San Juan Bosco ospatzeko. Eskarne jatetxean izango da bazkaria, 13.30etan eta joan nahi duenak 943201910 telefono zenbakian edo [maidrum@hotmail.com](mailto:maidrum@hotmail.com) helbidean eman dezake izena (azken eguna hilaren 27a izango da).



● **tartak**

● **enkarguak**

**etxera**

**Bidebarrieta, 28**

☎ 943 20 79 73

Zerbitzu osatuak Eibar eta eskualdeko osasun zentru eta etxeetan Gipuzkoa, Espainia eta nazioartetik egiten dira trasladoak

**NTRA. SRA. DE BEGOÑA**

**EHORZKETA-BEILATOKIA**

● KOROAK ● ESKELAK ● HILARRIAK ● AGIRIAK


BULEGOAK ETA ERAKUSKETA: ZERBITZU IRAUNKORRA:

Txaltxa-Zelai, 4-6 - behea, ezk. ☎ 943 201095 fax: 943 202564

## Danborradaren kontzertua domekan

**URTEROKO MARTXARI JARRAITUTA ETA SAN SEBASTIAN EGUNA GOGOAN, EIBARRREN ERE IZANGO DUGU** danborradarekin gozatzeko aukera: domekan, 12.30etan Cielito Musika Bandak eta Usartza Txistulari Taldeak, Eibarko Danborradaren barrilek lagunduta, Danbo-

rradaren kontzertua eskainiko dute Coliseoan. Donostiako Martxa ezagunaz gain, gure herriko zein inguruko herrietako danborradetako pieza ezagunekin osatutako egitaraua eskainiko dute eta, nola ez, danborra eramatera animatzen diren ikusle guztien laguntza eskertuko dute taula gainekoek.



## Komiki digitala on line

**JUAN SAN MARTIN LIBURUTEGIAK ANTOLATUTAKO "MAKING" TAILERREKO EMAITZA** bere blogean (<http://bibliotecaieibar.blogspot.com>) ikusteko moduan zintzilikatu dute: "A las 5 donde siempre" izenburuari jarraitzen dion komiki digitala, Ekhiotz Aranguena eta Jose Elíasen istorio laburra jasotzen duen lana. Anartz Aranguenaren laguntzarekin egindako komikia liburutegian bertan horrelako lanen edizio digitalean trebatzeko garatu zen tailerrean landu zuten: besteak beste istorioak, gidoiak, pertsonaiak, argazki digitalak eta biñetak ordenagailuan nola editatu ikasteko aukera izan zuten parte hartzera animatu zirenek.

## Euskeraren aldeko erretratuak

**EHEK MANIFESTAZIO NAZIONALA DEITU DU OTSAILAREN 12-RAKO, DONOSTIAN:** "Sasi guztien ginetik, euskaldun eta burujabe izan nahi dugula aldarrikatuko dugu bertan eta Eibarko EHEK, manifestazioari babesa emateko, euskaltzale guztien erretratuak bildu nahi ditugu". Horretarako gaur bertan eta asteburuan taldeko kideak kalean ibiliko dira argazki kamerarekin: "Argazki txikiz osatutako mosaikoa sortuko dugu guztiekin, eibartarrok ere manifestazioarekin bat egiten dugula adierazteko". Nahiago izanez gero, erretratuak internet bidez bidaltzeko aukera ere izango da ([eibar@euskalherrianeuskaraz.org](mailto:eibar@euskalherrianeuskaraz.org), [www.facebook.com/eibarkoeuskalherrianeuskaraz.php](http://www.facebook.com/eibarkoeuskalherrianeuskaraz.php), [www.euskalherrianeuskaraz.org](http://www.euskalherrianeuskaraz.org)).



**MIREN NARBAIZAK ETA ANDER MUJIKAK OSATZEN DUTEN NAPOKA IRIA TALDEAK BERE LEHEN DISKOA** izango dena grabatu berri du, urtarrila hasieran Bergarako Zabalotegi aretoan eskainitako zuzeneko kontzertuan. Bizi berri duten esperientziarekin oso pozik daude taldekideak eta euren abestiak entzun nahi badituzue, edo grabazioan Josu Torrealdayk egindako argazkietako batzuk ikusteko, Facebook edo Myspace-n taldearen gunek bisitatu ditzakezue.



## Napoka Iria-ren diskoa

## Ismael Iglesias Portalean

**BARIXAKUAN ZABALDU ZUEN ERAKUSKETA ISMAEL IGLESIAS ARTISTA DURANGARRAK PORTALEAN**, oso estilo bereziarekin landutako bere margolanekin. Hamarkada osoa eman du artistak era guztietako irudiak lantzen eta otsailaren 13ra arte gure herrian martxan dagoen erakusketak horietako asko bertatik bertara ezagutzeko aukera eskainiko digu. Orduetgia ohikoa izango da: martitzenetik domekara, 18.30etatik 20.30etara.




## EUSKARAREN

**TELEFONO KONPAINIAK ETA EUSKARA.** Sarearen bidez, Lander Iruretagoienak informazio baliagarria eskaini du telefono konpainiek euskaldunoi ematen dizkiguten aukerei buruz. Izan ere, konpainia guztiek ez dute berdin jokatzen euskararekin: esaterako, Euskaltelek defektuz bi hizkuntzetan bidaltzen du faktura, batzuek euskaraz jasotzeko aukera ematen dute, eta beste batzuek ezta hori ere. Iruretagoienak kaleratutako datuen arabera, Movistar-en kasuan 1004 zenbakira deitu behar da faktura euskaraz eskatzeko. Euskaltele-en kasuan, faktura bi hizkuntzetan iristen bada ere, aukera dago euskaraz eskatzeko 1717-ra deituta; horrez gain, ahoz euskaraz egiteko, 262-ra deitu daiteke. Vodafone-ren kasuan, faktura euskaraz eskatzeko 123-ra deitu behar da. Yoigo-ren kasuan, 622 zenbakira deitu behar da. Eta Eroski Movilen kasuan, 902-540340 telefono zenbakira. Bestalde, mobilak euskaraz konfiguratzeko ez dago konpainien baitan, modeloaren baitan baizik.

## TXOKOA

# laztanak emoten...


Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.




Zorionak, ANE, eguaztenian (hillaren 19xan) bost urte bete zenduazelako. Muxu haundi bat etxeko guztien partez.



Zorionak, GORETTI Abascal Larrabe, gaur hamar urte egitten dozuz-eta. Segi hain maittagarria izaten. Familixaren partez.




Zorionak, ANE, printzesa, gaur hamar urte betetzen dozuz-eta. Muxu bat etxekuen partez.




Zorionak, ARIANE, hillaren 17xan lau urte bete zenduan-eta. Muxuak eta besarkadak bihotzez. Aitor, ama eta aitta.




Ongietorri hillaren 14an jaixotako IBAI Osoro Kortabarriari eta zorionak amatxo Kontxi eta aitaatxo Unairi. Laztan haundi bana.




Zorionak, AITOR, martitzenian sei urte betetziagaittik. Zure anaixa Joseba, famelixeta lagunen partez.



Zorionak, ARKAITZ, hillaren 19xan bederatzi urte egin dozuzelako. Muxu haundi bat famelixeta guztiaren partez.



Zorionak, JANA Ortíz de Zarate, hillaren 16xan urtiak egin zenduazelako. Senitartien partetik.



Zorionak, FERMIN, hillaren 19xan 11 urte egin zenduazelen-eta. Etxekuen partez. Jarraitu holan!



Zorionak, JOSEBE, domekan 11 urte egingo dozuzelako. Aitta, ama eta Karmeleren partez.



Zorionak, MARIA (hillaren 25ian egingo dozuz urtiak) eta JORGE (8xan egin zenduazelen), beste urtetxo bat betetzerakuan. Familixeta guztiaren partez.

## zinea Coliseoan

**21ean: 22.30**  
**22an: 19.30/22.30**  
**23an: 19.30**  
**24an: 20.30**

### "Burlesque"

Zuzendaria: **Steve Antin**  
Aktoreak: **Cher, Christina Aguilera, Eric Dane, Cam Gigandet, Peter Gallagher**



Ali probintzietako neska da, bere ametsen atzetik Los Angeleseraino joango dena. Kamarera lana aurkituko du Burlesque Loungen eta hor ezagutuko du Tess. Bere laguna bihurtu eta eszenategira egingo du jauzia, ahots zoragarria erakutsiz.

**21ean: 22.30**  
**22an: 19.30/22.30**  
**23an: 19.30**  
**24an: 20.30**

### "Camino a la libertad"

Zuzendaria: **Peter Weir**  
Aktoreak: **Jim Sturgess, Ed Harris, Colin Farrell, Saoirse Ronan**



Siberiako gulag bateko Sobietar Batasuneko lan-eremu batetik ihes egingo du presoena talde batek, euren artean batera doan laukoteak. Amaierarik gabeko 10.000 kilometro egin beharko dituzte Indiara iristeko, biziraupen proba gogorrean.

**21ean: 22.30**  
**22an: 19.30/22.30**  
**23an: 19.30**  
**24an: 20.30**

### "Carne de neón"

Zuzendaria: **Paco Cabezas**  
Aktoreak: **Mario Casas, Macarena Gómez, Blanca Suárez, Vicente Romero**



Ricky-k mota guztietako jendearekin izan ditu harremanak, ama kartzelatik irtetzerakoan altxerako kluba ipini nahi diolako, prostituzioa laga dezan eta "Hiroshima Club"-eko ugazaba izan dadin. Izango dituen arazoei aurre egiteko, laukote bat osatuko du.

## HILDAKOAK

- Jacinta Aldazabal Guridi. 91 urte. 2011-I-5.
- Manuel San Roman García. 77 urte. 2011-I-6.
- Ignacio Laskurain Olaberria. 87 urte. 2011-I-12.
- Jose M<sup>o</sup> Okamika Elorza. 80 urte. 2011-I-13.
- Ramon Fernández Cid. 58 urte. 2011-I-14.
- Julio Lapeyra Gisasola. 74 urte. 2011-I-14.
- Kontxi Leibar Agirreurreta. 83 urte. 2011-I-15.
- Luisa Sánchez Martínez. 85 urte. 2011-I-15.
- Santiago Moreno Etxebarria. 95 urte. 2011-I-15.
- Roberto Unamuno Errazu. 66 urte. 2011-I-16.
- Julian Vegas Ramírez. 32 urte. 2011-I-16.
- Rosalina Alba Domingo. 79 urte. 2011-I-18.
- Elena Arriola Zamakola. 90 urte. 2011-I-18.

## JAOTAKOAK

- Alana Diéguez Santos. 2011-I-9.
- Samuel Valdés Etxebarria. 2011-I-9.
- Sara Rufz Comino. 2011-I-11.
- Lizar Ezenarro Narbaiza. 2011-I-11.
- Kerman Etxaide Alberdi. 2011-I-12.
- Garazi Arrieta Aginaga. 2011-I-12.
- Ekain Gisasola Bernardo. 2011-I-13.
- Josu Hernández Vaquero. 2011-I-13.

horoskopoa

**ARIES**

Ez dakit zelan egiten duzun horrenbeste jan eta ez loditzeko. Esaiezu sekretua dietan dauden lagun guztiei. Ziur eskertuko dizutela!

**TAURUS**

Egun osoa ematen duzu telebistaren aurrean; hurrengo urratsa zu ere telebistan agertzea izango da. Hurrengo "Konkistadorerako", agian?

**GEMINI**

Beharrezkoa al da ogitara ere autoz joatea? Laga egizu autoa behingoz eta erabili egizuz hanka eder horiek! Zuretako eta inguruenkodako mesede!

**CANCER**

Bizitza honetan arriskatu beharra dago: ezin zara beti zer gertatuko den zain egon. Hartu zeuk zure bizitzan eragiten duten erabakiak.

**LEO**

Egun gutxi barru mugikor bat topatuko duzu kalean; jabeak deitzen duenean, ezagutzen duzun pertsona bat dela konturatuko zara.

**VIRGO**

Zalantza asko dituzu eta guztiak pertsona beraren ingurukoak. Zergatik ez zara berarekin berba egitera ausartzen? Zeren beldur zara?

**LIBRA**

Betiko lagunak inguruan izatea ona da, baina jende berria ezagutzea inoiz ez da kaltegarria. Izan apur bat irekiagoa: irabazten irtengo duzu.

**SCORPIUS**

Ez duzu pazientziarik eta batzuetan nahiago izaten duzu gauzak azkar egitea ondo egitea baino. Ez larritu hainbeste eta lasaia hartu dena.

**SAGITTARIUS**

Triste samar ibili zara azken aldian eta lanak ere zoraturata eduki zaitu. Hartu atseden eta aprobetxatu SPA-ren bat edo beste ezagutzeko.

**CAPRICORNIUS**

Zeure akatsak onartu dituzu eta hori aurrerapausua da. Hemendik aurrera, horiei buelta ematen saiatu beharko zinateke: hori bai hori aurrerapausua.

**AQUARIUS**

Oso sentibera zaude egunotan. Hala ere, zure sentimenduak erreprimitzen dituzenez, hobe izango zenuke unean-unekoa askatzen ikastea.

**PISCIS**

Zure izaera muturrekoa da beti: jakin beharko zenuke gauzak ez direla beti zuri edo beltz izaten. Grisak ikusten hasi beharko zinateke: komeni zaizu.

**Barixakua 21**

**DANTZA**

**20.30.-** Break dance ikuskizuna, Nerea Lodosaren ikasleen eskutik. Sarrera: 5 euro. Coliseoan.

**Zapatua 22**

**IKUSKIZUNA**

**17.30.-** "¡Cómo está el patio!" Lagun Taldearen ikuskizuna. Sarrera: euro bat. Hezkuntza Esparruan.

**IKASTEN**

**18.30.-** Expe-gazte, gazteei ezagutza transmititzeko proiektua: 9-10 urtekoei sanblasak egiten irakatsiko zaie. Portalean.

**Domeka 23**

**DANBORRADA**

**12.30.-** Danborradaren kontzertua, Cielito Musika Banda, Usartza Txistulari Banda eta Eibarko Danborradako barrilen parte-hartzearekin. Coliseoan.

**KONTZERTUA**

**19.00.-** "Nevermind people". Hasier Oleaga, Aritz Luzuriaga, Jorge Abadias eta Ainara Ortega. Nirvanaren jazz bertsiok. Karrika tabernan.

**Martitzena 25**

**IKASTEN**

**10.00.-** Ikasten-eko bazkideen urteko batzarra. Armeria Eskolan.

**Eguaztena 26**

**JARDUNALDIA**

**09.30.-** Elektronika eta energia berriztagarrien arloari buruzko informazio ekitaldia, batxilergoko ikasleentzat. Eibarko Ingeniaritza Eskolan.


**IKASTEN**

**10.00.-** "El tabaco: historia, economía y sociedad", Montserrat Garateren eskutik. Armeria Eskolan.

**10.15.-** Mendi-ibilaldia, Soraluze-Bergara inguruan. Autobusaren irteera Ego Ginetik.

**ZINEA EUSKARAZ**

**16.00.-** "Pepper" (LHko 1, 2 eta 3. mailakoentzat). Coliseoan.



**Eguena 27**

**GREBA OROKORRA**

**05.30.-** Piketeak, Eibar, Elgoibar eta Itziarren. **12.30.-** Manifestazioa Donostian.

**18.00.-** Eskualde mailako manifestazioa, Untzagatik hasita.

**IKASTEN**

**10.00.-** "Historia de un rapto", José Antonio Azpiazuren eskutik. Armeria Eskolan.

**19.30.-** Kaleetan kantuz-erako entsegua. San Andres elizako lokalean.

**EGO-IBAR ZINE KLUBA**

**17.30 eta 21.00.-**

"Mujeres en El Cairo" (Zuz: Yousry Nasrallah). Sarrera: euro bi. Hezkuntza Esparruan.



**HITZALDIA**

**19.30.-** "Resumen de la temporada taurina 2010: una temporada histórica. Expectativas para el 2011". Hizlaria: Ketu García. Antolatzailea: Eibarko Pedrucho Zezenzaleen Elkarte. Portalean.

SUDOKUA


	8		9			2		
2			5					
3	7		4					
					3	4		8
		3		4		7		
1		6	8					
					4		2	6
					2			1
		1			9		3	

DENBORAPASAK

5	0	0	1	3	7	2	8	4
3	7	2	6	4	0	1	8	5
0	1	4	8	2	5	3	7	0
6	4	8	2	5	1	7	3	9
2	9	7	3	6	4	8	5	1
1	5	3	7	8	9	4	6	2
4	8	8	5	1	3	9	2	7
7	3	5	4	9	2	8	1	8
9	2	1	8	7	8	5	4	3

AURREKOAREN EMATZA





## erakusketak

- Urtarrilaren 26ra arte  
**SARA PEÑALBA**ren "Amerikabegiratzen" Boliviako argazki erakusketa. *Karrika tabernan.*
- Urtarrilaren 31ra arte  
**BAKARNE ELEJALDE**ren "Lanzarote" argazki erakusketa. *Portalean.*
- JOSE LUIS MARTINEZ**-en "Turkia" argazki erakusketa. *Depor tabernan.*
- PEDRO ARRIOLA**-ren "India" argazki erakusketa. *El Ambigú tabernan.*
- Otsailaren 2ra arte  
**EUSKO TREN**en unitate berriak ezagutzera emateko erakusketa. *Txaltxa Zelaian.*
- Otsailaren 6ra arte  
**"OROIPEN ARTEAN"** I. Argazki Zaharberrikuntza-aren Erakusketa, Einer Rodríguez Ponce-ren lanekin. *Untzaga Zentro Sozialean (erakusketa aretoan).*
- Otsailaren 13ra arte  
**"MY WAY, NO WAY, ANYWAY"** Ismael Iglesias-en irudi erakusketa. *Portalean.*
- Otsailaren 28ra arte  
**FERNANDO BEORLEGI**ren "Gogoaren pintzelkada garratzak" erakusketa. Lizarrako Gustavo de Maeztu museoa (martitzenetik zapatara 11.00-13.00 eta 17.00-19.00; jai-egunetan, 11.00-19.00).

## lehiaketak

- **Toribio Etxebarria Sariak 2010.** Informazioa eta lanak entregatzea: *Urtarrilaren 24ra arte, www.bicberrilan.com* helbidean.
- **"Aratosteak 2011 Eibarren" kartela.** Informazioa eta lanak entregatzea: *Urtarrilaren 28ra arte, Pegoran.*
- **Narruzko Zezen Sariak.** Informazioa eta lanak entregatzea: *Urtarrilaren 28ra arte, Hezkuntza Esparruan (943254465).*
- **Industriagintza V. Argazki lehiaketa.** Informazioa eta lanak entregatzea: *Otsailaren 25era arte, Armeria Eskolako Ikasle Ohien Elkarte.*

## farmaziak

- 21, barixakua**  
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)  
GAUEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- 22, zapatua**  
EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)  
GAUEZ **Ibarrondo** (Zeharkalea, 2)
- 23, domeka**  
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)  
GAUEZ **Ugarte** (Sta. Zezilia, z/g)
- 24, astelehena**  
EGUNEZ **Las Heras** (Sostoatarren, 10)  
GAUEZ **Aranburu** (Gipuzkoa etor., 46)
- 25, martitzena**  
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)  
GAUEZ **Alberdi** (Zubiaurre, 9)
- 26, eguaztena**  
EGUNEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)  
GAUEZ **Cortina** (Zubiaurre, 29)
- 27, eguena**  
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)  
GAUEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- 28, barixakua**  
EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)  
GAUEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)



## SARRERAK

**DANTZA:**  
*Break Dance.*

Urtarrilak 21, 20.30.

salgai

## ikastaroak

- **Makrobiotika ikastaroa.** Noiz: *Otsailak 2, 3, 9 eta 10, 19.00etatik 21.00etara* Portalean (sukaldean).  
Izen-ematea: *Urtarrilaren 21era arte, ...eta kiitoi-n (Urkizu, 11 solairuartera, 943200918 telefono zenbakia).*  
10 euro (...eta kiitoi-ko bazkideentzat eta berbalagunentzat doan).

## telefono jakingarriak

- SOS deiak .....112
- Pegora .....010
- Udaletxea .....943 70 84 00
- Portalea .....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB .....943 20 38 43
- Epaitegia .....943 03 34 00
- Iberdrola .....901 20 20 20
- Naturgas .....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.943 46 46 22
- Gurutze Gorria..943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia .....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza .....943 53 17 00
- Eusko Tren .....902 54 32 10
- Pesa .....902 10 12 10
- Taxiak.....943 20 30 71
- .....943 20 13 25
- Alkohol.Anon. ..629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen 650 26 59 63

## autobus ordutegiak

- EIBAR-DONOSTIA.** Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.10. **DO-NOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara ordu, 15.00, 15.30etatik 18.30etara ordu, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.
- EIBAR-BILBO.** Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.
- EIBAR-GASTEIZ.** Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.
- EIBAR-IRUÑEA.** Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Laneguna: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.
- EIBAR-ARRATE.** Zapatuak: 14.15. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Zapatuak: 14.45. Jaiegunak: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30.
- EIBAR-ELGETA.** Lanegunak: 13.30 eta 20.30. Jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Lanegunak: 14.00 eta 20.50. Jaiegunak: 12.30 eta 19.30.
- EIBAR-MENDARO.** Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara ordu. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara ordu eta 21.55.

## tren ordutegiak

- EIBAR-DONOSTIA.** Egunero: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.55 eta 21.55. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunero: 07.47etatik 20.47etara ordu, 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.
- EIBAR-BILBO.** Egunero: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.56 eta 21.56. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunero: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

## 1. Etxebizitza

### 1.2. Errentan

– Eibarren edo inguruan pisua hartuko nuke alokairua. Txikia, lagun batentzako. Tel. 609-918803.  
– 2/3 logelako etxebizitza hartuko nuke alokairuan. Tel. 618-877901.

## 2. Motorra

### 2.1. Salgai

– Opel Astra grisa salgai. 16 urte. Garajejan egonda. Egoera onean. Tel. 617-155976.

## 3. Lokalak

### 3.1. Salgai

– Estetika negoziua traspasatzen da. Lanean hasteko moduan. Tel. 657-793584.

### 3.2. Errentan

– Lokala alokagai Eibarko erdialdean. 70 m<sup>2</sup>. Komuna eta barrarekin. 20 urtetik gorako gazteentzat modukoa. Tel. 679-425467.  
– Lokala alokagai Amañan. 180 m<sup>2</sup>. Argitsua eta ibilgailuarentzat sarrera onarekin. Tel. 605-771570.  
– Lokala alokagai Ibarkurutzeko 4an, iturriaren parean. 200 m<sup>2</sup>. Tel. 609-918803.  
– Garajea alokagai (marra) Untzagan, Txaltza-Zelai azpian. Tel. 658-339709.  
– Garajea alokagai San Pio X-ean. Tel. 650-016440.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 680-956954.  
– Neska eskaintzen da jornada erdiz garbiketa lanak egiteko. Tel. 618-734000.  
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Orduka zein interna. Tel. 652-587259.  
– Neska arduratsua eskaintzen da asteburuetan lan egiteko. Esperientzia. Tel. 681-322442.  
– Neska eskaintzen da garbiketarako, sukaldari-laguntzaile moduan eta nagusiak zaintzeko. Tel. 608-406751.  
– Neska eskaintzen da umeak zaindu eta garbiketarako egiteko. Tel. 685-765340.  
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Tel. 663-682150.  
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Tel. 689-617818.  
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Tel. 689-935379.  
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Tel. 618-695736.  
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 646-821678.  
– Mutila eskaintzen da peoi, sukaldari-laguntzaile edo garbitzaile moduan eta nagusiak zaintzeko. Tel. 686-077316.  
– Emakumea eskaintzen da garbiketarako, sukaldari-laguntzaile moduan eta umeak zaintzeko. Tel. 608-474923.  
– Emakumea eskaintzen da garbiketarako, sukaldari-laguntzaile moduan eta umeak zaintzeko. Tel. 608-376387.

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

– Emakumea eskaintzen da garbiketarako, sukaldari-laguntzaile moduan eta umeak zaintzeko. Tel. 681-178842.  
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka. 3 urteko esperientzia. Tel. 635-187901.  
– Neska eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 605-129530.  
– Mutila eskaintzen da pintura lanak egiteko. Tel. 610-017571.  
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Ordutegi zabala. Esperientzia. Tel. 678-972690.  
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Tel. 689-798284.  
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Esperientzia. Tel. 608-147559.  
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Orduka edo gauzez. Tel. 630-365137.  
– Neska eskaintzen da edozein lan egiteko. Interna edo orduka. Tel. 608-820954.  
– Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. 08.00etatik 10.30-etara eta 16.00etatik aurrera. Tel. 670-999680.  
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Tel. 616-826542.  
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Tel. 943-257875.

### 4.2. Langile bila

– Neska euskalduna behar da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 605-734663.

## 5. Irakaskuntza

### 5.1. Eskaerak

– Alemanierazko irakaslea behar da. Tel. 943-176632.  
– Ingeles irakaslea behar da umei irakasteko. Tel. 645-488483.

### 5.2. Eskaintzak

– Mutil gaztea eskaintzen da umei ngeleseko klase partikularrak emateko umei. Tel. 685-765340.  
– Txakur-hezitzailea eskaintzen da oinarriko obediencia, portaera aldatetarako etabarreko klaseak emateko. Tel. 645-724397.

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

– Altxagailu elektriko artikulatua eslingarekin eta barandilla tolesgarri pare salgai. Egoera onean. Tel. 943-120219 eta 659-208746.  
– Play Station 2a salgai. Buzz, Eyeroy, Singstar eta beste 22 jokorekin. Ordenagailurako zazpi joko. 150 euro, negoziagarriak. Tel. 658-756462 eta 943-702583.

### 6.2. Eman

– Zortzi hilabeteko katu arra oparitzen da. Pertsona arduratsua behar da. Tel. 943-207513.

...eta kitto!-ren  
**itzulpen**  
zerbitzua



**ERA GUZTIETAKO  
TESTUAK  
ITZULTZEN  
DITUGU,  
euskaratik  
gaztelera,  
gaztelera,  
euskaratik  
eta ingelesa  
euskara.**

- Urte askotako  
**ESPERIENTZIA** dugu.




- Bezeroaren  
beharretara  
**EGOKITU**ko gara.

[elkartea@etakitto.com](mailto:elkartea@etakitto.com)

**5 eguneko Teorikako ikastaro trinkoak**

**ZEZEN  
BIDE**



**AUTO  
ESKOLA**


**AUTO  
ESCUELA**

**CURSOS INTENSIVOS**

**ORDUTEGIA:  
09.30-13.00  
15.30-20.30**

**GIDA-BAIMENAK**

San Andres, 1 ac  
Tel. 943 20 34 45  
**EIBAR**



## TEORIKA ATERATZEKO IKASTARO TRINKOAK

**Materia arriskutsuak / C.A.P.**

Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko  
**nazioarteko** agentzia **ziurtagiriak**  
lortzeko ikastaroak




**T. Etxebarria, 7**

**Tel. 943 70 23 84**

**Tel. 943 70 23 78**

**Jaka**  
**Ezkarai**  
eta inguruak



ERAIKUNTZA BE-  
RRIKO  
ETXEBIZITZEN  
SALMENTA  
JAKA,  
EZKARAI  
ETA  
INGURUETAN



**EUKI**

T. Etxebarria, 1 - behea  
Tel. 943 20 03 58

**FINKAK**

[fincas@euki.com](mailto:fincas@euki.com)